

2024

2. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía y Planificación

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	21
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	33

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	7
Enpleguaren bilakaera	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	31
2024ko eta 2025ko aurreikuspenak (I)	39
2024ko eta 2025ko aurreikuspenak (II)	40

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioak produktuen arabera	17
Esportazioen helmuga	18
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAE-ko kontsumoko prezioen indizea	23

Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	24
Lan kostuak	25
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-apirila).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Kreditu eta gordailuak.....	32
Ekonomia aurreikuspenak.....	34
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2024ko maiatza)	36
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2024ko ekaina).....	37
EAE-ko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2024ko ekaina)	38

LABURPENA

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak eutsi egin zion 2023ko hazkunde erritmo egonkorrari, eta urte arteko aldakuntza tasa %1,7 izan zuen, aurreko bi hiruhilekoetan jaso zuen tasa bera. Eraitza hori Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspena baino positiboagoa da; izan ere, Zuzendaritzak %1,4rainoko moteltzea aurreikusten zuen, urtearen gainerako hiruhilekoetan gorakada izan baino lehen. Halaber, hazkunde sendoa da, euroaren eremu osorako edo Europar Batasunerako argitaratutako behin-behineko datuekin alderatuz gero, haien hazkundera %0,4ko tasara mugatzen baita, Alemaniak (-%0,2) industriaren testuinguru ahul batean lortutako eraitza txarren ondorioz.

Industriaren arazoak ez dira Alemaniako ekonomiara bakarrik mugatzen; aitzitik, Europako gainerako ekonomiei ere eragiten diete, baita EAEko industriara ere. Izan ere, Euskadin, industriaren balio erantsia %0,1 baino ez zen hazi aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoko aldakuntza tasa bera, ziurgabetasun handiko, interes tasa altuko, eskaria ahuleko eta gatazka geopolitikoko testuinguru zail batean. Manufaktуреi dagokienez, adierazi behar da horiek profil dinamikoagoa eskaini zuten, %0,4ko hazkunde tasarekin. Ahulezia hori gorabehera, sektoreko enpresek beren plantillak handitzen jarraitu zuten, eskaria azkar suspertuko zela uste baitzuten.

Eraikuntzak bizitasun handiko irudia erakutsi zuen berriro, eta sektorearen balio erantsiak %2,0ko igoera eskuratu zuen, 2023an batez beste lortu zuen %2,1 hartatik oso hurbil. Sektorea kostu handiei aurre egiten ari da, bai lehengaietan, bai eskulanean, bai interes tasetan, baina dinamismo nabarmena mantentzen ari da. Koiunturazko informazio osagarriaren arabera, obra zibilak moteltzeko joera erakutsi du aurtengo hasieran, 2023ko bilakaera bikainaren ondoren; eraikinen atalak, berriz, ia aldaketarik gabe eutsi zion aurreko aldietako hedapen joerari.

Zerbitzuak izan ziren EAEko ekonomiaren dinamizatzaile nagusia 2024aren hasieran, eta haien balio erantsia %2,2 handitu zen urte arteko tasan, 2023an lortutako batez besteko balioa baino bi hamarren gutxiago soilik. Hala eta guztiz ere, sektorearen bilakaeraren egonkortasun horrek joera kontrajarriak ezkututzen ditu osagaien artean. Hala, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak atzean utzi ditu pandemiatik atera ondoren izan zituen ezohiko igoerak, eta lehen hiruhilekoan %1,0ra mugatu zuen balio erantsiaren igoera, sektoreko batez bestekoaren oso azpitik dagoen tasa baita. Aitzitik, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) biltzen dituen blokeak hazkunde erritmoa bizkortu zuen, %3,2ra iritsi arte. Azkenik, gainerako zerbitzuek ere oso gehikuntza tasa esanguratsua jaso zuten (%2,4), hiruhileko askotan izandako tasa apalagoak gaindituz.

Eskariaren aldetik, nabarmentzekoa da kanpoarekiko merkataritzak izan duen intentsitatearen galera, aurreko hiruhilekoan suspertu zela baitzirudien. Hala, ondasun eta zerbitzuen kanporako esportazioek (atzerrira eta Estatuko gainerako erkidegoetara) %3,7ko urte arteko jaitsiera izan zuten, eta inportazioen %3,4ko jaitsierak konpentsatu zuen, neurri handi batean. Bi aldagaien konbinazioak iradokitzen du kanpo saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena pixka bat negatiboa izan zela eta hamarren batera-edo mugatu zela.

Beraz, EAEko ekonomiaren hazkundera batez ere barne eskariaren sendotasunean oinarritzen ari da, %1,8 hazi baitzen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko datua baino ia puntu erdi gehiago eta 2023ko batez bestekotik oso hurbil. Eskari horren bi osagaietatik, azken kontsumoan eginiko gastua izan zen bizitasun handiena erakutsi zuena, %1,9ko hazkunde tasarekin, azken lau aldietako handiena baita. Bai kontsumo pribatuak (%1,7) bai kontsumo publikoak (%2,6) aldakuntza tasa nabarmenak eta aurrekoak baino handiagoak eskuratu zituzten. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak aurreko hiruhilekoan erakutsitako moteltzeko joera leunari jarraipena eman zion, eta 2024aren hasieran %1,3 hazi zen. Agregatu horren bi osagaien bilakaera laugarren hiruhilekoaren kontrakoa izan zen, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioa bat-batean hoztu baitzen (%2,5etik %0,2ra igaro zen), gainerako inbertsioa, berriz, %1,0tik %2,0ra bizkortu zen bitartean.

EAEko ekonomiak bizi duen une onaren gakoa lan merkatuaren sendotasunean dago, enpleguaren hazkunde erritmo oso garrantzitsuari eusten baitio. Hain zuzen ere, lehen hiruhilekoan enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, urte arteko %2,0 handitu zen, 19.000 enplegu garbi inguru sortuz. Enplegu horietako gehienak zerbitzuetan kontzentratzen dira, %2,4 igo baitira, baina industrian ere sorkuntza garrantzitsua izan da (%1,1), nahiz eta sektorea ahul dagoen. Azkenik, eraikuntzak %0,3ko ekarpen apala egin dio guztizko enpleguari.

Prezioak dira jarraitu beharreko funtsezko beste aldagai bat, haien bilakaeraren araberakoa baita moneta politika. Aurtengo lehen hilabeteetan, KPIaren indize orokorrak ez du erakutsi igoerak moteltzen jarraitzen duenik, eta apirilean %3,5ean zegoen oraindik, Europako Banku Zentralaren (EBZ) helburutik urrun. Hala ere, azpiko inflazioak moteltze azkarreko profila erakutsi du, duela urtebeteko %6,8tik egungo %3,1era apaldu baita.

Egoera makroekonomikoaren eguneratzeak ia ez du alderik erakusten joan den martxoan argitaratutako aurreikuspenarekin alderatuta. Hala, aurtengo urterako %1,9ko igoeraren aldeko apustua egin da, eta 2025erako, berriz, tasa %2,1ekoa izango da. Beraz, aurreko taularekiko aldakuntzak osagaien banaketara mugatzen dira. Azkenik, espero den enplegu sorrera 2024rako %1,8an eta hurrengo urterako %1,6an geratu dira berriro, eta langabezia tasa hamarren batzuk jaitsiko da, aurtengoa %7,2 eta datorren urtean %6,8 izateraino.


EKONOMIAREN INGURUNEA

2024ko lehen hilabeteetan tentsio geopolitikoak izan dira nagusi. Hala eta guztiz ere, munduko jarduera ekonomikoak ez zuen ahulezia sintomarik erakutsi, eta inflazioak moteltzeko bideari eutsi zion, baina 2023an baino intentsitate txikiagoarekin. Horri esker, munduko ekonomiak profil egonkorra erakutsi zuen, eta zenbait eremu geografikotan, euroaren eremuan esaterako, aurreikusitakoa baino dinamismo handiagoa izan zuen. Jarduera ekonomiko globalaren bilakaera positibo hori kontsumoaren sendotasunean oinarritu zen batez ere, bai kontsumo pribatuan bai kontsumo publikoan, lan merkatuek indar handia izaten jarraitu zuten testuinguru batean. Eskaintzari dagokionez, jardueraren sendotasunak zerbitzuen mende segitu zuen nagusiki.


Munduko ekonomia. BPGa (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Gorabidean dauden herrialdeetan egonkortasuna hauteman zen, baita hazkunde erritmoak hobetu ere. Zehatzago adierazita, Txinak aurreikuspenak gainditu zituen eta %5,3ko hazkunde tasa eskuratu zuen. Horixe izan zen 2023ko bigarren hiruhilekotik izan duen urteko hedapenik handiena, Pekinen etengabeko laguntza neurriek, Ilargiaren Urte Berriko jaialdiarekin lotutako gastuak eta manufaktura sektorearen erresilientziak bultzatuta; izan ere, sendo mantendu zen kanpoko eskariari eta teknologia aurreratuetan egindako inbertsioari esker. Hala ere, herrialdearen sendotasuna zalantzan dago oraindik. Izan ere, higiezinaren krisi luzeak konfiantza oztopatzen jarraitu zuen, fabriken prezioek urtebete baino gehiago daramate beherantz, eta deflazioaren itzala (prezioak ia ez ziren hazi martxoan, eta aurreko lau hilabeteetatik hiru eremu negatiboan igaro dira) Asiako erraldoiaren gainean dago kokatuta. Horrek guztiak barne eskari

anemikoa islatzen du, bai eta industria batzuen gehiegizko gaitasuna ere. Bestalde, Indian, manufaktura jarduera sendoak eta eraikuntza sektorearen hazkundeak BPGa %8,4raino bultzatu zuten, eta Brasilek, inbertsioa berreskuratzeari eta esportazioak bultzatzeari esker, %1,7 egin zuen gora.

Herrialde aurreratuen bilakaerari dagokionez, ELGaren jarduera ekonomikoa %1,6 hazi zen, ia 2023 urte osoko erritmo berean. Hala ere, itxurazko egonkortasun horren ondoren, lehen hiruhileko honetako hazkundeak aurreko hiruhilekoetakoaren bilakaera ezberdina izan du. Oraingo honetan, AEBetako ekonomiaren sendotasuna euroaren eremuko hazkundearekin uztartu zen; izan ere, badirudi hazkunde hori fase hobean sartu dela, susperraldi ekonomikoarekin, langabezia baxuarekin eta inflazio neurritsuagoarekin. Igoera horiek Japoniak jasandako uzkurdura konpentsatu zuten.

Zehatzago adierazita, munduko lehen ekonomiak ia bere horretan eutsi zion hazkunde erritmo nabarmenari (%2,9), eta, orain arte, lau hamarkadatan izan diren interes tasarik oldarkorrenen igoerei egin die aurre. Izan ere, Erreserba Federala inflazio horri aurre egiten saiatu da, baina honek ez du amore eman eta uko egin dio %2,0ko helburura jaisteari. Kontsumo pribatua, %2,3ko erritmoan hazi baitzen, izan zen AEBetako ekonomiaren eragile nagusia. Duela bi urte baino gehiagotik %4,0ren azpitik dago langabezia tasa eta familiek errenta, aurrezki eta zorretatik tira egin dute pandemian gastatu ezin izan zutena gastatzeko. Horri gehitu behar zaizkio bizitegitarako inbertsio finkoaren eta bizitegirako ez den inbertsioaren hazkundera eta estatu eta toki administrazioen gastuaren hazkundera, inportazioen gorakada handia konpentsatu baitzuten. Azken horren ondorioz, kanpo sektoreak hamarren bat kendu zion BPGaren hazkunderari.


Japonian, joan den udan hasi zen motelaldiaren itzalak bere ekonomia astindu zuen aurtengo lehen hiruhilekoan, bertako BPGa %0,1 uzkurdu baitzen urte arteko tasetan. Hain zuzen ere, kontsumo pribatua, herrialdeko ekonomiaren ia %60,0 baita, %1,0 jaitsi zen lehen hiruhilekoan. Uzkurduen hirugarren hiruhilekoa da jarraian, 2009tik, munduko finantza krisia zegoenetik, izan den boladarik luzeena. Bilakaera negatibo horrek japoniarrek prezioen igoeraren egungo testuinguruan gastatzeko duten errezeloa erakusten du. Inflazioa, %2,5 inguruan mantentzen dena, soldatak baino erritmo azkarragoan hazten ari da, eta horri yenaren etengabeko ahultzea gehitu behar zaio, biztanleriaren erosteko ahalmena murrizten baitu. Hala ere, yenaren balio galtze horrek ere alde positiboa izan zuen, esportazioak bultzatu eta inportazioak moteldu baitzituen, eta, horri esker, kanpo sektoreak 1,2 puntu ekarri zizkion jarduera ekonomikoari. Hala ere, ez zen nahikoa izan kontsumoaren, etxebizitzaren salmentaren eta enpresa inbertsioen uzkurdura konpentsatzeko.

Bestalde, Europako ekonomia, eta horrekin batera euroaren eremua, Ukrainako gerra hasi zenean bat-batean hoztu zena, hazi egin zen berriro, sei hilabeteko geldialdiaren ondoren. Orduan batzuek iragarri zuten atzeraldi gogorak ez du presentziarik izan, baina atzeraldi teknikoarekin flirteatu egin du, edo hortik ihes egitea lortu du, hamarren bat gorago edo beherago kokatuta hiruhileko arteko tasetan.


Analisia eurogunean zentratuz gero, 2024ko lehen hiruhilekoan BPGaren hazkundeak ez zuen dinamismo handirik erakutsi urte arteko tasetan, bi hamarren hobetu bazuen ere, nahiz eta hazkundearen susperraldi mailakatuaren zantzu hasiberriak ikusten diren. Besteak beste, kontsumo pribatuak 2023aren amaierako gorakada sendotzea lortu zuen, eta BPGari lau hamarreneko ekarpena egin zion, eta kanpo sektoreak hazkundeari egindako ekarpen negatiboa murriztu zuen. Halaber, euroaren eremuko PMIa hedapen eremuan dago aurtengo martxotik, eta maiatzean 52,3ra igo zen, azken hamabi hilabeteetako baliorik handienera. Horren arrazoia zerbitzuen PMIaren bilakaera ona izan zen (53,2 maiatzean), eta manufacturako PMIa ez da berraktibatu, baina hedapen eremutik gertu dago (49,3). Era berean, zerbitzuen sektorearekiko konfiantzak hobera egin zuen, jardueraren eta salmenten gorakadak jarraituko duen eta interes tasen jaitsierek eskaria suspertuko duten igurikimen baikorren aurrean.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta BEA.

Herrialdeka, Alemania izan zen berriz ere ekonomiarik kaltetuena, %0,2ko jaitsiera jaso baitzuen, hirugarren uzurtze jarraitua. Barne eskariaren ahulezia izan zen hazkunderako oztopo nagusia. Familiek ez dute kontsumitu nahi, eta industriak eta eraikuntzak eskaera berri gutxi dituzte. Diru sarrera errealek kontsumo pribatua bultzatu eta ekonomiari eutsi beharko liokete, baina

ziurgabetasunak eta arrisku geopolitikoek pisu handiagoa dute. Horri guztiari gehitu behar zaizkio jaitsiera librean jarraitzen duten esportazioak. Alemaniako ekonomiaren hazkunde formula oso bideratuta dago kanpo merkataritzara, eta, beraz, oso sentibera da kanpo eskaria ahultzen duten nazioarteko gertaerekin. Gaur egungo koiuntura geopolitikoak, Europa eta AEBak Txinatik babestu nahian dabilzala, eta Europako industriaren lehiakortasunaren beherakadak, Alemaniako hazkunde eredu horri kalte egiten diote.

Frantzian, aldiz, kontsumo pribatuaren egonkortasunak eta esportazioen sendotasunak bultzatu zuten jarduera ekonomikoa, hamarren bat bizkortu baitzen %1,3raino. Espainia, bere aldetik, gainerako bazkideen gainera nabarmendu zen, BPGaren %2,4ko hazkundearekin, azken urteko handiena. Berrero ere, Espainiako ekonomiak erresilientzia nabarmena erakutsi zuen Europako atoniaren aurrean. Zehatzago adierazita, Espainiako jarduera ekonomikoak ekonomia orekatua izan zuen, eta barruko eta kanpoko eskariak hamarrenak ekarri zizkioten jarduerari. Inbertsioaren bilakaera nabarmendu zen; izan ere, ahulezia garbia izan zuen 2023aren amaieran, eta indarra berreskuratu zuen urtearen hasieran. Familien kontsumoa, berriz, sendo mantendu da lan merkatuaren eta errenta mailaren ildotik, eta egonkor mantendu da, %2,3ko hazkunde tasarekin.

Lan merkatuari dagokionez, euroguneko langabezia tasa %6,4an kokatu zen joan den apirilean, martxoan baino hamarren bat beherago, eta minimoetan 1988tik, hots, seriea hasi zenetik. Hain zuzen ere, langabeen batura 11 milioitik behera geratu zen erregistroak daudenetik lehen aldiz. Europar Batasun osoko tasa, bestalde, hamabosgarren hilabetez jarraian finkatu zen %6,0 inguruan. Datu on horiek inflazioaren bilakaerarekin osatu ziren, maiatzean %2,6an finkatu baitzen, martxoan eta apirilean %2,4an egonkortu ondoren. Tasa hori Europako Banku Zentralaren %2,0ko helburura hurbiltzen da, duela urte erdi eskas urrun zegoen tasa. Azpiko inflazioa, berriz, %2,9koa izan zen. Hala ere, prezioen bilakaerak eskualdeko kezka nagusietako bat izaten jarraitzen du, inflazioaren gaineko presioak ez baitatoz erregaietatik, soldata igoeretatik baizik. Izan ere, aurreko urteetan jasandako inflazio kolpearen ondorioz, soldatapeko askok erosteko ahalmena galdu dute, eta hori berreskuratzeko orain egiten duten presioa prezioetara pasa daiteke, beste igoera bat eraginez.

Koiuntura adierazle berriek, batez ere zerbitzuen sektoreari buruzkoek, adierazten dute jardueraren dinamismo berri hori bigarren hiruhilekoan ere luzatzen ari dela, eta horrek indartu egiten du euroaren eremuko jarduera ekonomikoa 2022aren amaieratik hona izan duen atonia atzean uzten ari delako teoria. Gainera, nazioarteko merkataritzaren susperraldi mailakatua aurreikusten da, iazko laugarren hiruhilekoan ikusitako ahultasunaren ondoren. Itsaso Gorrian oraindik ere arazoak egon arren, itsas garraioaren prezioak merkatzen hasi dira, eta hornidura kate globalek erresistentzia ahalmenari eusten diote.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak aurreko bi aldietako hazkunde erritmoari eutsi zion, eta %1,7 hazi zen urte arteko tasan. Balio hori Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak martxoan egindako aurreikuspena (%1,4) baino zertxobait altuagoa da eta erakusten du EAEko ekonomia espero baino tonu positiboagoa izaten ari dela, nahiz eta zailtasun handiak egon nazioarteko ingurunean, gerra gatazkengatik, arlo ekonomikoen polarizazioagatik, inflazio handiagatik eta interes tasa oraindik ere altuengatik. Bizitasun hori ez dator bat Europako ekonomiek 2023ko bigarren erdian eta 2024ko hasieran erakutsitako ahuleziarekin. Hala, euroguneak %0,4ko urte arteko hazkundera izan zuen lehen hiruhilekoan, eta Europar Batasunak, berriz, %0,5ekoa, EAEko ekonomiak erakutsi duen erritmotik oso urrun. Europaren bultzadarik ezaren zati handi bat Alemaniako ekonomiak bizi duen une txarretik dator (-%0,2), hango ekonomia ez baita suspertzen.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	5,4	1,8	2,4	1,5	1,7	1,7	1,7
Nekazaritza eta arrantza	-8,7	-3,0	1,3	-5,9	-4,4	-2,6	-0,5
Industria eta energia	4,7	0,3	1,2	-0,7	0,5	0,1	0,1
- Manufakturen industria	4,4	0,5	1,5	-0,5	0,7	0,3	0,4
Eraikuntza	6,7	2,1	0,9	3,6	2,5	1,5	2,0
Zerbitzuak	5,9	2,4	3,0	2,2	2,1	2,3	2,2
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	14,6	3,7	5,7	3,1	3,7	2,5	1,0
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,9	2,3	1,3	2,3	2,6	2,9	3,2
- Gainontzeko zerbitzuak	3,2	1,6	2,2	1,6	0,7	1,7	2,4
Balio erantsi gordina	5,5	1,8	2,5	1,5	1,7	1,6	1,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,6	1,6	1,8	1,0	1,5	1,9	1,9

Iturria: Eustat.

Alemaniaren eta, oro har, Europaren arazoak industria jarduerarik ezaren ondorio dira, argitaratutako industria ekoizpenaren datuen arabera. Energiaren eta beste produktu batzuen

garestitzeak, kanpoko eskariaren ahuleziak eta ziurgabetasunak sektorea geldiarazi dute. Hori bera gertatzen da EAEko ekonomian ere, nahiz eta azken hori bere balio erantsiaren gehikuntza txiki bat (%0,1) lortzeko gai izan zen, eta hori are garrantzitsuagoa da manufakturen kasuan (%0,4).

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
Industria							
Industria produkzioaren indizea	5,6	-0,6	2,0	-1,8	-0,7	1,2	0,3
Negozio zifren indizea	26,4	-0,3	15,2	-7,7	-1,2	-5,5	-9,5
Industria giroaren indizea (maila)	1,1	-14,9	-12,7	-15,8	-15,3	-16,0	-15,1
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,2	1,2	1,1	1,3	1,0	1,2	1,2
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	8,3	5,6	2,9	11,3	6,1	2,6	5,2
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-13,7	-17,4	-39,7	7,3	-14,3	-9,7	12,0
Etxebizitzaren salerosketak	9,1	-13,2	-3,6	-18,2	-14,8	-17,5	-11,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,7	0,8	1,3	0,9	0,7	0,4	0,1
Zerbitzuak							
Merkataritza salmenten indizea	2,9	-1,5	0,9	-2,6	-2,3	-1,9	-2,1
Merkatuko beste zerbitzu batzuen	11,6	6,5	11,6	5,9	6,3	3,1	2,4
Negozio zifren indizea	15,2	2,9	10,8	1,5	1,2	-1,0	-3,0
Hegazkinen bidezko bidaiariak	100,7	24,0	61,0	19,9	17,1	17,8	13,9
Hoteletan igarotako gaualdiak	54,2	12,0	30,4	11,2	7,9	7,4	9,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,4	1,8	1,3	1,7	2,1	2,2	2,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Euskadiko industria ekoizpenari buruzko datu berriek ez dituzte sektorearen inguruko zalantzak argitu; izan ere, apirileko IPIak (-%1,4) urte arteko jaitsiera txiki bat izan zuen berriro, eta horrek ilundu egin zuen urtearen hasieran sumatzen zen itxurazko susperraldia. Produktu multzoen araberrako analisiak adierazten du alde nabarmenak daudela talde bakoitzaren bilakaeran. Hala, irudi positiboa erakusten du ekipamendurako ondasunen ekoizpenak, apirilean %5,8ko hazkunde tasa eskuratu baitzuen eta hamabi hilabetez jarraian hazkunde tasa positiboak lortu baititu. Bestalde, energiaren ekoizpenak bere ezaugarri diren gorabehera handiei eusten die, eta lehen hiruhilekoan %4,4ko hazkundera izan ondoren, apirilean %3,2ko jaitsiera izan zuen. Bitarteko ondasunek profil negatiboa izan dute bilakaeran, lau hiruhilekotan jarraian behera

egin baitute, eta apirileko datua gehitu behar zaio (-%2,4), ildo beretik jarraitzen duena. Azkenik, bazirudien kontsumorako ondasunen ekoizpenak atzean utzi zituela zailtasunak aurtengo hasierarekin, baina apirileko saldoa (-%7,3) oso etsigarria izan zen, batez ere kontsumo iraunkorreko ondasunen bilakaera txarragatik (-%16,5).

Industria jarduera suspertzen ari ez den arren, sektorearen igurikimenek bilakaera positiboagoa erakusten dute, industria giroaren indizean hauteman daitekeen bezala. Zehatzago adierazita, indize horrek hobera egin zuen pixka bat lehen hiruhilekoan, -15,1eko mailara iritsi arte, 2023ko batez bestekoan erregistratu zen datutik (-14,9) nahiko hurbil dagoela. Hala ere, jadanik eskuragarri dago apirilerako eta maiatzerako informazioa, eta hobekuntza nabarmena nabari da haietan: -8,3 apirilean eta -5,2 maiatzean. Azken hilabete horretan, eskari zorroak hobekuntza txiki bat izan zuen lehen hiruhilekoarekin alderatuta; saldu gabe dauden produktu amaituen stocka murriztu egin zen, eta produkzioaren joerari buruzko erantzunak, oraindik ezkorrak izan arren, ez ziren aurreko hilabeteetan bezainbestekoak izan. Azkenik, industriako enpleguari buruzko aurreikuspenak oso baikorrak dira inkesta honetan.

Interes tasak jaisten hasi dira, baina oraindik maila altuak daude kokatuta. Hala eta guztiz ere, eraikuntzako jarduerak bilakaera ona izan du 2024ko lehen hiruhilekoan. Hain zuzen ere, sektorearen balio erantsia %2,0 handitu zen, aurreko datua baino puntu erdi bat gehiago eta 2023an batez beste lortu zuen %2,1 hartatik oso hurbil dagoela. Eskuragarri dagoen koiunturazko informazioak adierazten du sektoreko bi osagaiek aldakuntza tasa garrantzitsuak lortu zituztela lehen hiruhilekoan, baina eraikinen atala dela emaitzarik onenak lortu zituena. Bestalde, sektoreak aurre egin behar dien kostuak aurreko urtean baino gutxiago igo dira, baina eskulana eta lehengaiak oraindik ere nabarmen garestitzen ari dira.

Zalantzarik gabe, EAEko ekonomiaren motorra zerbitzuak dira gaur egun. Aurtengo lehen hiruhilekoan, sektorearen balio erantsia %2,2 handitu zen urte arteko tasan, eta zifra hori ez da aurreko aldietakoen oso bestelakoa. Hala eta guztiz ere, sektorearen osaera oso desberdina da orain aurreko hiruhilekoetan izandakoaren aldean. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioko jarduerak biltzen dituen taldeak lortu zituen emaitzarik onenak 2022an zein 2023an, baina aurtengo hasieran balio erantsiaren igoera %1,0ra mugatu da, sektoreko batez bestekoaren oso azpitik. Aitzitik, sektore publikoari gehien lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) emaitzak hobetu dituzte, %3,2ko tasara iritsi arte. Gainerako zerbitzuek ere irudi positiboa eman zuten eta balio erantsia %2,4 handitu zuten, aurreko hiruhilekoetako emaitzak hobetuz.


Zerbitzuen momentu onari jarraipena ematen ari zaio bigarren hiruhilekoaren hasieran ere, koiunturazko informazio berrienaren arabera. Hala, turismoari dagokionez, kontuan izan behar da Aste Santua hilabete desberdinetan ospatu zela 2023an eta 2024an, eta, beraz, beharrezkoa

delat bi hilabeteen batura aztertzea. Hori horrela izanda, bi hilabete horietan EAEko aireportuetatik bidaiatu duten pertsonen kopuruak aurreko urtean izan zirenak baino %12,3 gehiago izan dira aurten, eta hotel establezimenduetako gaualdiak, berriz, %6,6 handitu ziren. Bi tasek indar handia adierazten dute, nahiz eta bi kasuetan moteltzeko joera nabari den aurreko erritmoen aldean.


Lan merkatua da EAEko ekonomiak bizi duen une onaren gakoetako bat. Lanaldi osoko lanpostu baliokideei dagokienez, enplegua bizkortzeko joera txikia erakusten ari da, 2023ko lehen hiruhilekoan izandako %1,5etik aurtengo hasierako %2,0ra iritsi arte. Kalkuluaren arabera, 992.829 lanpostu daude gaur egun EAEko ekonomian eta horrek adierazten du azken urtebetean 19.300 enplegu garbi baino gehixeago sortu direla. Ohikoa den bezala, sortutako enplegu berri gehienak zerbitzu jardueretan kontzentratu ziren, %2,4 hazi baitziren sektore horretako lanpostuak (17.000 enplegu baino zertxobait gehiago), eta industriak, berriz, %1,1 handitu zuen bere enplegua eta 2.000 enplegu baino gehixeago eman zizkion ekonomiari. Gainerakoak eraikuntzakoak izan ziren, lehen sektoreak dozenaka lanpostu galdu baitzituen berriro.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak.

Enpleguaren sorrera BJAk argitaratutako emaitzetan ere hautematen da, urte arteko aldakuntza tasa %1,8an kokatzen baitute; sexuaren araberako banaketa honakoa delarik: %2,0 igo da emakumeen artean eta %1,7, berriz, gizonen artean. Enpleguaren bilakaera horren ondorioz, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasa duela urtebete erregistratutako %69,1etik gaur egungo %69,9ra igo da. Egoerak hobera egin du bi sexuetan, emakumeen tasa %65,8tik %66,6ra

igo baita eta gizonena, berriz, %72,4tik %73,2ra. Beraz, bi sexuen arteko aldea 6,6 puntutan mantentzen da.

Aurtengo bigarren hiruhilekoan enplegu sorrera nabarmen ari da hazten oraindik, baina agian lehen hiruhilekoan baino zertxobait gutxiago. Gizarte Segurantzako afiliazioak eskaintzen dituen datuen arabera, apirila eta maiatza bitartean lortutako batez besteko hazkunde tasa %1,7 izan da, eta aurreko bi hiruhilekoetan, ordea, %1,9ra iritsi zen. Enpleguaren hazkundearen erritmoa berriz ere biziagoa da emakumeen artean gizonen artean baino (%2,0 eta %1,4 hazi da, hurrenez hurren), zerbitzuetan hautematen den bultzada handiagoa dela eta, sektore horrek biltzen baitu emakumeen enpleguaren zatirik handiena. Zehatzago adierazita, afiliazio gehien lortu dituzten jarduerak hezkuntza eta osasuna dira, emakumeen ehuneko oso handia duten jarduerak baitira, baina baita ostalaritza, manufakturak eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak ere. Igoera orokorra da, eta ia eraikuntzan eta lehen sektorean soilik ikusten da afiliazio kopuruak behera egin duela.

Enpleguaren bilakaera onak lanpostu bat eskatzen duten pertsona berriak erakarri ditu lan merkatura; beraz, biztanleria aktiboa %0,8 hazi da aurtengo lehen hiruhilekoan. Biztanleria aktiboaren hazkundea bateragarria izan da langabeen murrizketarekin, azken hori %10,0 murriztu baitzen aurreko urtearen aldean. Langabezia tasari dagokionez, lehen hiruhilekoan jasotako balioa %7,9koa izan zen, aurreko hiruhilekoko datua baino hamarren batzuk gehiago, baina 2023ko hiruhileko berean izandako tasa baino puntu bat txikiagoa. Oraindik ere alde gutxi dago bi sexuen artean, eta emakumeen langabezia tasa (%8,2) gizonen langabezia tasa (%7,7) baino puntu erdi bat handiagoa baino ez da. Alde nabarmenak daude Espainiako nazionalitatea duten pertsonen langabezia tasaren (%6,2) eta beste nazionalitate bat duten pertsonen (%22,4) artean.

BPGaren eta enpleguaren arteko konbinazioak erakusten du pertsona landun bakoitzeko itxurazko produktibitate saldoa apur bat negatiboa izan dela (-%0,3), eta egoera hori ez da ohikoa, jarduera baten garapenean eraginkortasuneko hobekuntzak lortzeko joera izaten baita. Produktibitate galera horren arrazoi nagusia industriaren bilakaera da, balio erantsia ia ez baitzuen handitu, baina langileen kontratazioa nabarmen areagotu baitzuen. Pentsatzekoa da portaera horren atzean sektorea azkar suspertzeko itxaropena dagoela. Kasua antzekoa da zerbitzuetan, nahiz eta kasu horretan balio erantsiaren hazkundea (%2,2) eta enpleguarena (%2,4) nahiko antzekoak izan ziren. Kontrako kasua eraikuntzan ikusten da, jarduera nabarmen hazi baita ia langile gehiago behar izan gabe, eta baldintza horiek produktibitate irabazia (%1,7) ohiko balioen gainetik (%0,4) kokatu dute.

Barne eta kanpo eskaria

Eskarien azterketak barne eskariak lortutako bultzada nabarmentzen du; kanpoko eskariak, berriz, neutraltasunari eutsi zion, eta hamarren bateko ekarpen negatiboa bakarrik egin zuen, kanpokoekiko trukeek jaitsiera neurritsuak izan zituzten testuinguruan. Beherakada horiek zalantzak sortzen dituzte aurreko hiruhilekoan hauteman zen eta finkatu ez den merkataritzaren susperraldiari buruz.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	5,4	1,8	2,4	1,5	1,7	1,7	1,7
Gastua azken kontsumoan	6,0	1,5	2,0	1,2	1,6	1,4	1,9
- Familien gastua kontsumoan	7,7	1,5	1,8	0,9	1,6	1,5	1,7
- Adminis. gastua kontsumoan	0,7	1,8	2,4	2,3	1,3	1,2	2,6
Kapital eraketa gordina	8,7	2,1	1,6	2,5	2,6	1,6	1,3
- Ekipamendu ondasunak	7,1	2,1	2,4	0,9	2,4	2,5	0,2
- Gainontzeko inbertsioa	9,6	2,0	1,1	3,5	2,6	1,0	2,0
Barne eskaria	6,7	1,7	1,9	1,5	1,8	1,4	1,8
Esportazioak	17,1	1,2	6,3	-2,5	-0,6	1,6	-3,7
Inportazioak	18,7	1,0	5,4	-2,3	-0,3	1,3	-3,4

Iturria: Eustat.

Lehen adierazi den bezala, EAEko ekonomia, batez ere, barne eskariaren bultzada handiagatik hazten ari da; izan ere, aldagai hori %1,8 hazi zen aurreko urtearen aldean, aurreko datua baino lau hamarren gehiago eta 2023ko batez bestekoaren ildotik (%1,7). Bi osagai nagusien bilakaera kontrakoa izan zen lehen hiruhilekoan; hala, azken kontsumoan eginiko gastuak aurreko tasa ona bizkortu zuen, eta kapital eraketa gordinak beste urrats bat eman zuen moteltzeko prozesuan, azken hiruhilekoetako baliorik txikienetako erregistratu arte, nahiz eta balio esanguratsua izaten jarraitu zuen.

Azken kontsumoko gastuari dagokionez, urte arteko hazkunde tasa %1,9ra igo zen, azken lau aldietako handiena baita. Alde batetik, familien kontsumoak azken hiruhilekoetako tonu egonkorrari eutsi zion, eta %1,7ko hazkunde tasa izan zuen aurreko urteko hiruhileko beraren

aldean. Inflazioaren igoerak txikiagoak izateak, enplegua sortu izanak eta diru sarrerak hobetzeak ahalbidetu dute familiek beren gastua ekonomiaren batez besteko hazkundearen ildotik mantentzea. Bestalde, administrazio publikoen gastuak gorabehera handiak izan ohi ditu ordainketa egutegiaren arabera, eta %2,6ra igo zen, azken bi urteetan izan den hiruhilekoko zenbakirik altuenera, alegia.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	-1,4	0,4	-0,7	0,8	1,5	0,3	0,2
Txikizkako merkataritza indizea	2,9	0,9	1,8	0,9	0,6	0,3	-0,8
Kontsumo ondasunen ekoizpena	4,8	0,1	3,0	1,5	-1,7	-2,1	1,0
Kontsumo ondasunen inportazioa	17,6	1,0	15,5	-6,9	1,5	-4,9	-16,2
Turismoen matrikulazioa	-8,8	5,9	18,7	1,7	-6,7	11,1	2,7
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	9,4	4,1	4,9	0,0	4,4	7,2	3,4
Ekipo ondasunen inportazioa	21,3	10,5	26,3	7,9	2,2	6,6	-12,1
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-13,5	15,4	8,3	19,5	18,0	16,1	14,5
Etxebizitza berriak eraikitze oniritziak	-13,7	-17,4	-39,7	7,3	-14,3	-9,7	12,0
Lizitazio ofiziala	54,2	-27,6	21,5	13,3	-18,5	-65,0	24,6

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Beste aldetik, kapital eraketa gordinak moteltze leuneko prozesuarekin jarraitu zuen, eta lehen hiruhilekoan %1,3ko urte arteko hazkundea jaso zuen, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren txikiagoa eta azken hamabi hiruhilekoetako txikiena dena. Beheranzko bilakaera hori ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioan soilik kontzentratzen da, horrek bere emaitza onak gelditu baitzituen eta %0,2 baino ez baitzen hazi, aurreko balioetatik oso urrun. Ondasun mota horren inportazioak beherakada handia izan zuen hiruhilekoan, aurreko aldiak emaitza onekin alderatuta. Halaber, EAEko produktuen helburuko ekonomiek erakusten duten ahuleziak ez du inbertsiorik egitera bultzatzen, dagoeneko instalatuta dagoen ekoizpen ahalmenaren erabilera nahiko txikia den une honetan. Beste aldetik, gainerako inbertsioak, eraikuntzan egiten dena barnean kokatzen baita, nabarmen hobetu zuen aurreko emaitza, eta aldakuntza tasa %2,0raino igo zuen. Sektoriko adierazle aurreratu batzuen arabera,

hala nola etxebizitza berrietarako baimenak eta lizitazio ofiziala, datozen hilabeteetarako jarduerak gora egingo du.

Kanpo eskariak BPGaren hazkundeari egindako ekarpen negatiboa bakarrik hamarren batekoa izan zen lehen hiruhilekoan, eta kopuru horrek aldagai horrek ekonomiaren barruan duen rol neutroa berresten du, inportazioek esportazioen ekarpena konpentsatzen baitute. Zehatzago adierazita, EAetik kanpora bidalitako ondasunen eta zerbitzuen esportazioak %3,7 murriztu ziren termino finkoetan, eta inportazioak, berriz, %3,4. Aldakuntza tasak antzekoak direnez, BPGaren gaineko eragina, lehen seinalatu den bezala, txikia izan zen. Unean uneko prezioetan, tasa horiek, hurrenez hurren, -%3,6 eta -%2,3 izan ziren. Hala ere, trukaturako kopuruak oso handiak izan ziren; izan ere, 16.096 milioi eurora iritsi ziren kanpoko salmenten kasuan, eta 16.817 milioira, berriz, erosketen kasuan.

Zenbateko horien ia erdia Estatutik kanpora bidalitako eta aduanetan kontabilizatutako ondasunen esportazio eta inportazioei dagokie. Hala, 2024ko lehen hiruhilekoan, 7.529 milioi euroko balioa izan zuten atzerirako ondasunen salmentek, aurreko urteko aldi berean baino ia %16 gutxiago. Kontuan izan behar da datu gordinak direla eta Aste Santua hilabete desberdinetan ospatu izanak aipaturako emaitzan eragina izan dezakeela, lan egindako egunen kopuruan dagoen aldeagatik, baina ez dirudi apirileko kopuruak esportazioen zeinua aldatzeko balioko dutenik.

Esportazioak produktu motaren arabera aztertuz gero, erregai mineralen salmentak %0,3ko igoera txikia lortu zuen; energiarekin zerikusirik ez duten produktuek, ordea, beherakada handia izan zuten, %16,9koa, alegia. Ia ondasun talde guztiek jaitsiera handiak izan zituzten aurtengo lehen hiruhilekoan, 2023ko aldi berarekin alderatuta. EAeko egitura esportatzailean pisu handiena duen atalak, hots, garraio materialak, 2.000 milioi euro baino gehiago saltzea lortu zuen, baina kopuru hori aurreko urtean bildutakoa baino %17,8 txikiagoa izan zen. Antzeko bilakaera izan zuen plastikoa eta kautxua barnean hartzen dituen taldeak, hau ere automobilgintzari lotuta baitago, salmenten balioa %19,1 murriztu zuelako. Bigarren talde garrantzitsuenak, metal arruntek eta beren manufakturrek, 1.575 milioi euroko salmentak eskuratu zituzten, %20,1eko jaitsierarekin 2023aren aldean, urte horretan zehar izandako emaitza txarrei jarraipena emanez.

Gainerako atalei dagokienez, makineria eta aparatuak nabarmentzen dira, hirugarrena garrantziari dagokionez, 1.512 milioi euroko salmentak eta %1,5eko urte arteko jaitsiera metatu baitzituen, gainerako taldeen jaitsiera handiekin kontrastean. Aipatzekoa da, halaber, nekazaritzako produktuen beherakada handia (%41,1), 2022an bereziki, baina baita 2023an ere, emaitza onak lortu ondoren. Gainerako taldeek, salmenta egituran pisu txikiagoa dutenek,

aldakuntza tasa negatiboak izan zituzten, baina batez bestekoa baino txikiagoak. Paperaren kasuan, %14,2koa izan zen, eta produktu kimikoen kasuan, berriz, %10,9koa.

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	26,8	0,3	-11,0	-6,5	0,6	-15,9	7.528.986
Erregai mineralak	108,8	-31,2	-59,6	-52,7	7,3	0,3	505.373
Ez-energetikoak	22,2	3,4	-6,9	-0,8	-0,1	-16,9	7.023.613
Nekazaritzakoak	35,1	2,9	-1,6	-14,9	-17,6	-41,1	401.919
Kimikoak	29,4	-11,6	-32,7	-20,9	-18,6	-10,9	281.536
Plastikoak eta kautxua	17,1	6,7	0,0	4,2	3,4	-19,1	519.771
Papera	31,9	-17,3	-20,9	-28,5	-26,0	-14,2	190.069
Metal arruntak	27,3	-12,7	-20,8	-14,6	-18,2	-20,1	1.575.433
Makinak eta aparatuak	13,0	8,7	-3,3	10,1	7,2	-1,5	1.511.570
Garraio materiala	18,5	19,1	8,0	12,8	19,9	-17,8	2.060.919
Gainerakoak	31,2	3,6	-7,6	1,9	-0,5	-16,4	482.396

Iturria: Eustat.

Salmenten jaitsiera ia berdin banatzen da bi eremu ekonomiko handietan; izan ere, herrialde garatuetako salmenten beherakada %16,2 izan zen, eta garatzeko bidean dauden ekonomia, berriz, %14,5. Horren ondorioz, eremu bakoitzera bideratzen den proportzioa ia ez da aldatu, eta EAEko esportazio gehienak herrialde garatuetara bideratzen dira. Hain zuzen ere, esportatutako 7.529 milioi euroetatik, 6.491 milioi (%86,2) ELGAko partaideak diren herrialdeetara joan ziren, eta gainerako 1.038 milioiak eremu horretatik kanpoko herrialdeetara.

Herrialde garatuetara zuzendutako salmenta gehienak euroaren eremuan biltzen dira, eta 4.194 milioi euroko balioa zuten ondasunak bidali ziren bertara, guztizkoaren %55,7. Salmenta horiek aurreko urtekoak baino %15,2 txikiagoak izan ziren. Salmenten egiturari, pisu handiena duen taldea ibilgailu automobilena da, guztizkoaren laurden bat biltzen baitute, eta horri kautxuak duen pisua gehitu behar zaio; beraz, biak batuta guztizkoaren ia herena dira. Biek ere jaitsierak izan zituzten salmentetan, guztizko jaitsieraren oso antzekoak. Aitzitik, azpimarratu behar da erregai mineralen esportazioak %16,4 egin zuela gora eurogunera, eta guztira 425 milioi euro saldu zirela.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	26,8	0,3	-11,0	-6,5	0,6	-15,9	7.528.986
ELGA	27,1	1,4	-10,3	-7,2	1,3	-16,2	6.491.409
Eurogunea	27,3	-3,4	-11,8	-13,3	-3,1	-15,2	4.193.693
Alemania	22,2	2,9	-2,9	0,9	-4,3	-20,2	1.122.366
Frantzia	20,3	-1,7	-14,6	-4,7	-0,1	-3,1	1.329.873
Italia	29,8	4,4	-10,2	9,7	4,7	-8,8	468.031
Erresuma Batua	17,0	3,0	-15,6	-8,5	3,9	-15,1	507.047
AEB	41,9	21,2	-4,4	22,0	15,6	-34,3	496.902
ELGAtik kanpokoak	25,2	-5,3	-15,1	-2,3	-3,4	-14,5	1.037.577

Iturria: Eustat.

Frantzia izan zen, berriz ere, EAeko enpresek fabrikatutako produktuen hartzaile nagusia, 1.330 milioi eurora iritsi arte, eta kopuru hori iazkoa baino %3,1 txikiagoa baino ez da, eta lehen helmuga gisa duen papera berresten du. Erregai mineralen esportazioa nabarmentzen da, %73,2 hazi baitzen, eta esportazioen guztizkoarekiko ehuneko %18raino igo zen, duela bi urte %4ra iristen ez zenean. Garraio materialak ere jarduera ona izan zuen, salmentak %4,9 igo baitziren, ibilgailu automobilak une onean zeudelako. Aitzitik, metal arrunten eta horien manufakturen salmenta, pisu handieneko atala baita, laurden bat murriztu zen.

Alemaniko ekonomia geldialdi fase batean murgilduta dago, eta hori merkatu horretara egindako esportazioen datu oso negatiboetan islatzen da. Guztira, 1.122 milioi euroko produktuak saldu ziren, aurreko urtean baino %20,2 gutxiago. Jaitsiera ehuneko handi hori garraio materialaren salmentatik dator, herrialdeari egindako salmenta guztien erdia biltzen baitu. Aitzitik, pisu gutxiko partida batzuek (erregai mineralek eta makinek, esaterako) portaera hobea erakutsi zuten.

Italiako merkatuak batez bestekoa baino portaera hobea izan zuen, eta salmenten beherakada %8,8ra mugatu zen. Herrialde horretara bideratutako EAeko produktuak, guztira, 468 milioi eurokoak izan ziren, eta garraio materialak garrantzi handia izan zuen, salmentak %10,2 igo baitziren. Pisua duten beste atalek ez zuten hain portaera dinamikoa erakutsi. Hala, metal arrunten salmenta %18,2 murriztu zen eta makineriarena, berriz, %15,3.

Erresuma Batuaren kasua kontrakoa da: garraio materialaren esportazioak %26,2 egin zuen behera eta makinena eta aparatuen esportazioak, berriz, %13,2 egin zuen gora. Guztira, herrialde horretara bidalitako esportazioak %15,1 murriztu ziren eta guztira 507 milioi eurotan kokatu ziren. Deigarria da produktu energetikoen esportazioak izan duen bultzada, ia ez baitzuen pisurik eta orain guztizkoaren %11,1 biltzen baitu, nahiz eta kontuan hartu behar den oso portaera gorabeheratsua duten produktuak direla.

AEBetara zuzendutako esportazioek batez bestekoak baino bilakaera negatiboagoa izan zuten, eta beren balioa %34,3 murriztu zuten, 497 milioi euro izatera iritsi arte. Emaitza txar hori erregai mineralen salmenten jaitsieraren ondorioa da; izan ere, iaz 107 milioi eurokoa zen eta aurten 33 milioi eurokoa baino ez da izan. Baina gainerako atalek ere ez zuten portaera positiborik erakutsi. Hala, metalen eta beren manufakturen salmenta %40,9 murriztu zen, eta makinena eta aparatuen, berriz, %1,8. Biak dira herrialdera egindako esportazioen egituraren pisu handiena duten taldeak. Gainerako taldeek ere ez zituzten salmentak hobetu.

Garapen bidean dauden herrialdeen multzoak %14,5eko jaitsiera izan zuen, lehen adierazi den bezala. Herrialde horietara gehien esportatzen diren bi produktu taldeak makineria eta automobilak dira, eta biek jaitsiera nabarmenak pairatu zituzten aurtengo lehen hiruhilekoan. Lehenengo kasuan, %8,8koa, eta, bigarrenean, %17,8koa. Aipagarria da, halaber, erregai mineralen salmenten beherakada (-%78,7), hegakortasun handia erakusten baitute. Aitzitik, metal arruntak eta produktu kimikoen esportazioek gora egin zuten (%9,0 eta %6,6, hurrenez hurren).

Garatzen ari diren herrialdeen artean, Txinak eremu osoaren bestelako irudia eman zuen. Herrialde horrek ELGAtik kanpoko herrialdeetara egindako esportazio guztien %17,0 biltzen du, eta lehen hiruhilekoan %18,2ko igoera eskuratu zuen. Ia ez dago produktu energetikoen esportaziorik herrialde horretara, eta garraio materiala eta makineria dira atal nagusiak, nahiz eta metal arruntak ere gero eta pisu handiagoa hartzen ari diren. Hiruren artean EAetik herrialde horretara esportatutako guztiaren %94 metatzten dute. Talde horien aldakuntza tasa, hurrenez hurren, %15,1, -%4,3 eta %306,8 izan zen.

Guztira, inportazioek ere ez zuten bilakaera onik izan lehen hiruhilekoan, eta urte arteko zenbatekoa %8,7 murriztu zen. Aipatu behar da erregai mineralek soilik gehitu zituztela erosketak (%6,0), eta gainerakoek ez zituztela aurreko urteko balioak lortu (-%13,3). Makinen eta aparatuen erosketak, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioari oso lotua baitago, %12,8 murriztu zen, eta metal arruntek beheranzko bosgarren hiruhilekoa kateatu zuten, oraingoa %9,1eko jaitsierarekin. Inportazio egiturako beste atal nagusiek ere jaitsierak izan zituzten, %20,9 garraio materialaren kasuan eta %10,8 nekazaritza produktuen kasuan.

Inportazioen jatorriaren azterketak erakusten du jaitsiera ELGAtik (-%9,7) eta gainerako herrialdeetatik (-%6,3) etorritako ondasunetan gertatu zela. Herrialde handien artean, salbuespen bakarra AEBak izan ziren, 2023an baino %10,6 balio handiagoko produktuak saldu baitzizkieten EAEko enpresei. Herrialde horretan 512 milioi euro erosi ziren guztira, eta horietatik 312 milioi erregai mineralak izan ziren, %40,6 gehitu zirenak. Gainerako atalek emaitza negatiboa izan zuten, garraio materialak izan ezik (%31,4), nahiz eta partida hori 2,5 milioi eurora baino ez den iristen, guztizkoan pisu txikia izanik. Bestalde, EAEko ondasun hornitzaile nagusia Alemania da oraindik ere, herrialde hartan erositakoa 955 milioi euroraino iritsi baita eta ia %15,0ko merkatu kuota baitu.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	39,7	-8,9	-9,9	-15,8	-17,9	-8,7	6.507.274
ELGA	32,5	-2,1	-3,7	-4,9	-16,2	-9,7	4.543.530
Eurogunea	22,3	1,7	-0,2	0,8	-7,5	-8,3	2.944.247
Alemania	21,5	5,3	9,6	9,0	-6,4	-8,2	955.539
Frantzia	21,8	-13,1	-19,8	-11,4	-17,1	-10,8	540.081
Italia	15,7	0,1	-5,1	4,0	-5,0	-1,5	346.339
Erresuma Batua	42,5	-39,8	-37,3	-1,8	-42,3	-8,5	155.434
AEB	207,0	-13,8	-20,8	-22,1	-31,3	10,6	511.748
ELGAtik kanpokoak	54,5	-21,0	-22,0	-32,0	-21,1	-6,3	1.963.744

Iturria: Eustat.

Ondasunen esportazioen eta inportazioen arteko konbinazioak 1.022 milioi euroko merkataritza saldoa utzi du aurtengo lehen hiruhilekoan, EAEn aldekoa. Saldo hori lortu da energiaz bestelako produktuen 2.318 milioi euroko saldoari esker; energiaren saldoa, ordea, negatiboa izan da berriro, eta guztira 1.296 milioi eurokoa da. Saldo positiboa 2023koa baino txikiagoa da, eta energetikoa ordukoa baino negatiboagoa. Aurreko aldietan bezala, EAEn merkataritza saldo positiboa lortu du herrialde garatuekin, eta negatiboa, berriz, garapen bidean dauden herrialdeekin. Lehenengoa 1.948 milioi eurokoa izan zen, eta Frantzia izan zen protagonista nagusia, herrialde harekiko 790 milioi euroko saldoa lortuz. Garapen bidean dauden herrialdeekiko defizita 926 milioi eurokoa izan zen: 271 milioi euroko saldo negatiboa Brasilekin, 231 milioi euroko Txinarekin, 103 milioi euroko Errusiarekin eta 321 milioi euroko munduko gainerako herrialdeekin.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioen portaera aztertzen duten adierazleen artean, eta analisia BPGaren deflatorearekin hasita, adierazle horrek iradokitzen du barne kostuen presioak urteko lehen hiruhilekoan hasi zirela apaltzen. Hain zuzen ere, deflatorearen hazkundera 2023ko laugarren hiruhilekoko %3,3tik 2024ko lehen hiruhilekoko %2,7ra moteldu zen, azken hamaika hiruhilekoetan lortutako erregistrorik txikiena baita. Beheranzko bilakaera horretan, kontsumo pribatuaren deflatorea nabarmendu zen, %3,6tik %3,5era igaro baitzen; barne eskariaren gainerako osagaiek, ordea, beren deflatorearen igoera areagotu zuten.

Kontsumoko prezioen indizeari (KPI) dagokionez, haren bilakaera goranzkoa izan zen aurtengo lehen hilabeteetan, eta hirugarren hilabetez jarraian igo zen. Hala eta guztiz ere, egia da haren oraingo erregistroak duela bi urtekoak (krisi energetikoa gertatu zenean) baino askoz ere txikiagoak direla. Izan ere, krisi horren ondorioz, prezioen gorakada handi horiek geldiarazteko neurri publiko ugari ezarri ziren. Hala, maiatzean, datuak ditugun azken aldia hori baita, inflazioa %3,9ra igo zen, elektrizitatearen prezioen igoeraren eta erregaien prezioen jaitsiera txikiagoaren ondorioz.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2022	2023	2023			2024		Ekarpena
			IV	I	Maiatza			
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	3,4	3,3	3,9	3,9		
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	4,7	3,7	3,3	2,8		
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	8,6	5,6	5,0	0,8		
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	2,6	1,8	0,9	0,2		
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	4,3	3,9	3,8	1,8		
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	-2,6	1,1	7,2	1,1		
- Landu gabeko elikagaiak (%6,5)	10,8	7,3	6,7	5,4	6,0	0,4		
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-9,8	-2,6	7,5	0,7		

Iturria: INE.

KPIaren igoera eragin zuten faktoreen artean, elektrizitatearen prezioaren bilakaera nabarmentzen da, lehen aipatutako laguntzak kentzeak eragin handia izan baitzuen. Hala, martxoan eta apirilean agortu egin ziren krisiaren eragina arintzeko martxan jarritako energia

horniduren zerga beherapenak, eta elektrizitatea eta gas naturala berriro zergapetu ziren BEZaren tasa orokorrean, hau da, %21ean. Hain zuzen ere, lehengai horrek hainbat asteko igoera izan du, 36 eurotik gorako mailan Mwh bakoitzeko, baina egia da prezioa oso urrun dagoela iazko maximoetatik (54 euro Mwh bakoitzeko).

Era berean, erregaien goranzko boladak ere presio egin zion KPIren gorakadari aurtengo urte hasieratik, eta azken hilabeteetako hazkundeetan lagundu zuen. Garestitzea LPEEko herrialde ekoizleek eskaintza murriztu dutelako eta Ekialde Hurbilean gero eta tentsio handiagoa dagoelako gertatu da. Hala eta guztiz ere, petrolioaren prezioek apaltzeko joera txiki bat erakutsi dute duela gutxi, batez ere LPEEkoak ez diren herrialdeetako petrolio ekoizpen handiagoari esker.

Bestalde, euroaren eremuko inflazioak EAEn erregistratutakoak baino maila apalagoetan jarraitzen du. Horri esker, EBZk, 2016ko martxotik lehen aldiz, interes tasak jaitsi zituen ekainean, %4,5etik %4,25era. Bien bitartean, euroaren eremuko prezioek zortzi hilabete daramatzate jarraian %3tik behera, neurri batean energiaren prezioen bilakaerak gutxiago eragiten dielako.

Etorkizunari begira, aurreikusten da inflazioak gorantz jarraituko duela datozen hilabeteetan, eta, ondoren, behera egiten hasiko dela, ez baita espero bigarren itzuliko ondorio esanguratsurik gauzatuko denik. Aurreikuspen horiek baldintzatuta egongo dira, batez ere, egoera geopolitiko globalak okerrera egin dezakeelako, eta horrek lehengai energetikoen prezioak igotzea ekarriko lukeelako.

Azpiko inflazioari dagokionez, zenbait hilabetetan beheranzko bilakaera orokorra erakutsi ondoren, aurtengo bosgarren hilabetean bi hamarren igo da, baina bigarren hilabetez jarraian indize orokorraren azpitik mantendu da, apirilean hamasei hilabetez luzatu zen joera hautsi ondoren. Horiek horrela izanda, energiaren bestelako ondasun industrialek aurreko hilabeteetan erakutsi zuten moteltzeko joera luzatu zuten, eta landutako elikagaiak, berriz, zertxobait moteldu zuten garestitzea, produktu horien BEZaren jaitsierak lagunduta, hasiera batean ekainean luza zitekeena. Aitzitik, zerbitzuek moteltzeko joera hori galgatu zuten, urte arteko aldakuntza tasak handitu baitzituzten, jatetxeen eta turismoaren goranzko bilakaeraren ondorioz.

Beste aldetik, hondar inflazioak, elaboraziorik gabeko elikagaien eta produktu energetikoen prezioen goranzko bilakaera dela eta, berriz ere aldakuntza tasa positiboak jaso zituen, eta egoera hori ez zen gertatu 2022. urtearen amaieratik. Hala, lehenengoek tasa altuetan jarraitu zuten, 2023ko urtarrilean elikagai batzuen BEZaren murrizketari lotutako oinarriko ondorioek

eta ekoizteko erregistratu ziren baldintza klimatologikoen eraginda. Bestalde, erregaien goranzko boladak energiaren prezioa gorantz presionatu zuen.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023			2024	
			II	III	VI	I	Maiatza
Indize orokorra	8,0	3,6	3,3	3,0	3,4	3,3	3,9
Janariak eta alkohol gabeko edariak	11,2	11,1	11,4	9,9	8,3	5,8	5,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,3	7,0	7,6	7,0	5,8	4,3	4,3
Jantziak eta oinetakoak	2,8	2,0	1,5	2,3	1,5	1,4	0,4
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	15,8	-12,0	-12,1	-16,7	-7,1	-0,3	5,3
Etxeko hornidura	6,6	6,0	7,2	5,4	3,7	2,3	1,3
Medikuntza	0,6	2,3	2,8	2,4	2,3	2,7	2,7
Garraioa	11,2	0,3	-2,9	0,9	2,4	2,2	3,9
Komunikazioak	-1,2	3,2	2,5	4,4	3,3	0,5	-0,1
Aisia eta kultura	3,2	4,6	4,8	7,1	3,2	3,3	2,4
Irakaskuntza	1,6	1,9	1,9	1,6	2,1	2,2	2,2
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	6,0	6,2	6,4	5,8	5,8	5,0	5,3
Besteak	3,8	5,4	6,1	5,6	4,7	4,2	3,3

Iturria: INE.

KPIaren gorakadan eragin handiena izan zuten taldeen artean, lehenago ere aurreratu den bezala, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien igoera nabarmendu zen, hazkunderik handienak izan baitzituen (%5,6), baina 2023aren hasierako erregistroetatik urrun. Talde horren atzetik etxebizitzarena etorri zen, puntu bat eta hiru hamarren igo baitzen, %5,3raino, gasaren prezioen igoerak eta elektrizitatearen prezioen bilakaerak bultzatuta. Aitzitik, komunikazio taldea izan zen aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen bakarra, -%0,1ean kokatuz, eta beheranzko joerarekin jarraitu zuen, sektorea liberalizatu zenetik etengabe. Era berean, aisialdia eta kultura biltzen dituen taldea pixka bat gehiago garestitu zen, pakete turistikoaren eskaera handiagoaren ondorioz, baina aldaketa tasak oso urrun daude 2022ko erdialdean lortutakoetatik, mugikortasunari ezarri zizkion murrizketak kendu ondoren.

Beste aldetik, industria alorreko prezioek eragindako ezkutuko presioek behera egiten jarraitu zuten aurtengo lehen hilekoetan, aurreko aldietako asaldurek behera egin zuten heinean. Jaitsiera hori nabarmenagoa izan zen prezioak eratzeko prozesuaren lehen faseetan, batez ere

energian (-%24,5), eta askoz ere neurritsuagoak bitarteko ondasunetan (-%1,3). Bitartean, prezio horiek eratzeko prozesuaren ondorengo faseetan, kontsumo iraunkorreko ondasunen portaera nabarmendu behar da (%13,2), gainerako osagaien portaeratik guztiz desbideratu baitzen.

Hitzarmen kolektiboei dagokienez, EAEn soldatapekoen %55,6k hitzarmen eguneratua zituen apirilaren amaieran eta langileen %4,7k soilik zuen hitzarmena indargabetuta. Hori horrela izanda, negozioazio kolektiboa berreskuratzen jarraitzen du, batez ere sinatutako hitzarmenen kopuruak gora egin duelako. Zehatz-mehatz adierazita, 118 hitzarmen berri sinatu ziren, 31.000 pertsona baino gehiagori eragiten dietenak, eta gaur egun 366.821 langile daude beren lan akordio eguneratuekin. Era berean, EAeko hitzarmenek KPlaren antzeko soldata igoerak ezarri zituzten lehen lauhilekoan (%3,4 eta %3,3, hurrenez hurren), eta, beraz, erosteko ahalmena ez zen galdu.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2022	2023	2024 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,7	1,2	4,1	4,2	3,4
- Urtean zehar sinatutakoak	1,2	1,1	4,1	4,7	4,5
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,7	1,0	3,9	4,3	3,4
- Enpresako hitzarmenak	1,7	1,9	4,7	4,1	3,2

(*) 2024ko apirilera arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Azkenik, lan kostuek balio neurritsuak izaten jarraitzen dute, eta bi hiruilekoz segidan inflazioaren azpitik igo dira. Hain zuzen ere, langile bakoitzeko lan kostu osoa %2,2 handitu zen 2024ko lehen hiruilekoan, aurreko aldiko erregistro berean. Lan kostuak osatzen dituzten osagaien artean, beste behin ere, *beste kostu batzuk* deiturikoak izan ziren gehien igo zirenak, enplegatzaileen kotizazioen igoerak eraginda, pentsioen erreformaren ondorioz. Azterketa lan egindako ordu bakoitzeko egiten bada, orduan soldaten igoera %6,4koa izan zen. Azkenik, benetan lan egindako orduen kopuruak aurreko hiruilekoko erregistro negatiboak berretsi zuen (-%3,3), adostutako orduak bezala, aurreko aldiko aldakuntza tasa positiboak alde batera utzi baitzituzten, %0,2tik -%0,3ra igaro zirelako.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022	2023	2023				2024
			I	II	III	IV	I
Lan kostu guztiak langileko	2,7	4,5	5,0	6,9	4,2	2,2	2,2
- Soldata kostua guztira	2,9	3,7	4,3	6,3	3,9	0,7	1,9
- Bestelako kostuak	2,2	6,9	7,1	8,6	5,0	6,8	3,1
Lan kostu guztiak orduko	2,6	5,0	3,4	10,0	3,5	3,6	6,4
- Soldata kostua guztira	2,8	4,2	2,6	9,3	3,2	2,1	6,1
- Bestelako kostuak	2,2	7,3	5,5	11,7	4,3	8,3	7,2
Adostutako lan orduak	-0,5	0,1	0,1	0,3	-0,3	0,2	-0,3
Benetan lan egindako orduak	0,4	-0,5	1,6	-2,8	0,6	-1,4	-3,9

Iturria: INE.

Arlo publikoa

Aurtengo lehen lau hilabeteetan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru ogasunek iazko aldi berean baino 72 milioi euro gutxiago bildu zituzten zergen bidez. Hain zuzen ere, azken hiru ekitaldietan izandako hazkunde nabarmenen ondoren, %1,3ko beherakada txiki bat gertatu zen, 5.467 milioi euro jaso baitziren 2024an, eta 5.539 milioi euro, berriz, 2023an. Jaitsiera hori, batez ere, ogasunek milaka mutualisten ekarpenengatik egin behar izan zituzten itzulketek eragin zuten, bai eta Bizkaiak ez-egoiliarren iazko PFEZean izan zituen ezohiko diru sarrerek ere, aurten errepikatu ez direnak.

Hala eta guztiz ere, zuzeneko zergapetzeak (%6,8) portaera positiboa erakusten jarraitu zuen. Horrela, eta PFEZtik hasita, zerga horren bidezko diru bilketa %4,7 handitu zen aurreko urtearekin alderatuta, beste behin ere, laneko etekinetatik etorritako diru sarrerek bultzatuta, lan merkatuaren dinamismoak mesede egin baitzien. Era berean, kapital higigarriaren errendimenduagatiko atxikipenek igoera nabarmena izan zuten (%59,3), banku kontuen interesen gaineko atxikipenek gora egin zutelako eta dibidenduek nabarmen egin zutelako aurrera.

Zuzeneko zergen bilketarekin jarraituz, nabarmentzekoa izan zen, konturako lehen ordainketa aurkeztu ondoren, sozietateen gaineko zergaren diru bilakaera, %41,9 handitu baitzen.

Hazkunde garrantzitsu horren arrazoia, azken hilabeteetan bezala, enpresek izandako mozkin handiak izan ziren.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-apirila)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2023	2024	% Ald. 24/23
PFEZ	2.145.958	2.245.821	4,7
Sozietateen gaineko zerga	284.322	403.350	41,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	83.427	43.509	-47,8
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	53.217	48.196	-9,4
Ondarearen gaineko zerga	2.694	3.331	23,6
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	75	301	-
ZUZENeko ZERGAK GUZTIRA	2.569.694	2.744.508	6,8
BEZ	2.506.782	2.212.096	-11,8
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	54.921	56.090	2,1
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	11.271	12.339	9,5
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	7.730	8.784	13,6
Fabrikazioaren zerga berezia	291.030	311.987	7,2
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	3.145	8.602	173,5
Aseguru sarien gaineko zerga	39.004	40.605	4,1
Joko jardueren gaineko zergak	2.431	2.695	10,9
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	1.961	1.608	-18,0
Finantza-transakzioen gaineko zerga	0	15.004	-
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	4.049	5.770	42,5
Zaborte gietan hondakinak uztearen gaineko zerga	196	6.236	-
Iraungitako zergak	1	5	-
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	2.922.522	2.681.821	-8,2
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	47.077	41.149	-12,6
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	5.539.294	5.467.478	-1,3

Iturria: Foru aldundiak.

Aitzitik, zeharkako zergen diru bilketak %8,2 egin zuen behera, batez ere BEZaren bilakaerak eraginda (-%11,8). Produktu energetikoen gaineko zerga tasek gora egin bazuten ere, azken hilabeteekiko prezioek izan zuten apaltzeko joerak eragin negatiboa ekarri zion zerga horren diru bilketari.

Azkenik, zerga bereziek, BEZak ez bezala, %7,2ko hazkundera lortu zuten, ekitaldi honetan doikuntzak ez zirelako hain negatiboak izan. Doikuntza horiek kontuan hartu ezean, %2,7ko jaitsiera gertatuko zen, osagai guztiak balio negatiboetan jarrita, tabako laboreen gaineko zerga izan ezik. Hidrokarburoek guztizkoaren gainean izan zuten garrantziagatik nabarmendu behar da (-%4,4), Bizkaiko lurraldean eragin handiena izan duena, Petronorren plantaren presentziagatik.

Arlo finantzarioa

2024ko urtarrila eta martxoaren erdialdea bitartean, finantza merkatuen bilakaera nahiko neurritsua izan zen. Inbertitzaileek desinflazio erritmoan eta moneta politikaren doikuntza egutegian jarri zuten arreta, eta banku zentralak finantza baldintzak biguntzeko hainbesteko presarik ez zutelako ideia sendotu zen. Zor subiranoaren errendimenduek interes tasekin bat egin zuten funtsean, eta dibisa merkatuetan euroaren truke tasa efektiboa ia egonkor mantendu zen.

Martxoaren amaieran, moneta politika normalizatuago baterantz zihoan inflexio puntu bat antzematen hasi zen, eta 2024an ziklo ekonomiko globalak norabidea aldatuko zuen igurikimena indartu egin zen. Suitzako Bankua izan zen erreferentzia tasa oinarrizko 25 puntu murriztu zuen lehen banku zentrala, %1,5ean finkatuz. Beste aldetik, Ingalaterrako Bankuak, esku hartze tasari %5,25ean eutsi bazion ere, aho batez baztertu zuen igoera gehigarririk (azken bileretan ez zen horrelakorik gertatu). Aitzitik, Japoniako Bankuak epe laburreko erreferentziako interes tasak handitzea erabaki zuen, eta norabide horretako lehen neurria ezarri zuen 17 urtean. Halaber, dirua malgutzeko programa zabalaren barruan beste estimulu batzuk kendu zituen. Ekintza horiek inflexio puntu bat markatu zuten, moneta politika konbentzionalago batera itzultzeko bidean, nahiz eta erreferentziako tasek zerotik hurbil jarraitzen duten, ekonomiaren susperraldi hauskorraren ondorioz. Hori dela eta, banku zentralak kontu handiz jokatu behar du etorkizuneko zorpetze kostuen igoeretan.

Ekainean erabaki zuen EBZk interes-tasak 0,25 puntu murriztea eta %4,25ean kokatzea. Murrizketa hori inflazioaren bilakaeraren moteltzeak bultzatu zuen, euroaren eremuko jarduerak gora egin zuen testuinguru batean. Lehen aldia da, 2016az geroztik, EBZk interes tasak murrizten dituela, garai hartan Europako ekonomiaren prezioak igotzen ez zirenean. Hala eta guztiz ere, murrizketa horrek ere hoztu egin ditu tasak beheratzeko zikloaren igurikimenak, inflazioak bere horretan jarraitzen duelako (%2,4an kokatu zen martxoan eta apirilean, baina %2,6ra igo zen maiatzean). Izan ere, EBZk hamarren batean gorantz berrikusi ditu inflaziorako

aurkeztu dituen aurreikuspenak, %2,5era 2024an eta %2,2ra, berriz, 2025ean. Inflazioa apaltzen ari da, baina ez kontrolatuta. Oraingoan, baliteke interes tasak jaistea, baina ez murrizketa-ziklo bat hastea.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2022	2023	2024					
			Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Eka. (*)
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentr.	2,5	4,5	4,5	4,5	4,5	4,5	4,5	4,25
Erreserba Federala	4,25-4,5	5,25-5,5	5,25-5,5	5,25-5,5	5,25-5,5	5,25-5,5	5,25-5,5	5,25-5,5
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	0,0-0,1	0,0-0,1	0,0-0,1	0,0-0,1
Ingalaterrako Bankua	3,5	5,25	5,25	5,25	5,25	5,25	5,25	5,25
Txinako Banku Popular	3,65	3,45	3,45	3,45	3,45	3,45	3,45	3,45
Brasilgo Banku Zentr.	13,75	11,75	11,75	11,25	10,75	10,75	10,5	10,5
10 urteko zor publikoaren								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	109	97	93	88	86	77	73	97
Grezia	203	105	108	98	100	89	101	120
Erresuma Batua	111	151	164	172	164	177	167	172
Italia	213	198	157	143	138	129	132	151
AEB	127	184	179	184	191	210	184	185

(*) Ekainaren 17ko datuak.

Iturria: Espainiako Bankua.

Atlantikoaren beste aldean, Erreserba Federalak ez zuen amore eman eta azken 23 urteetako maila gorenean utzi zuen diruaren prezioa. Orobat, beheranzko norabideari hasiera emateko egutegia atzeratu zuen, aurtan tasen murrizketa bakarria aurreikusita. Horiek horrela izanda, Fedek zazpigarren etenaldia berretsi zuen jarraian, inflazioak behera egiten jarraitzen duen froga gehiagoren zain. Izan ere, maiatzean bertako KPIa %3,3an zegoen oraindik, %2,0ko helburutik urrun.

Interes tasa subiranoei dagokienez, hamar urterako bonuen errentagarritasuna egonkorra izan zen aurtengo lehen hilabeteetan, eta arrisku sariak, berriz, historikoki txikiak ziren balioetan jarraitu zuten, batez ere bizi den ziurgabetasun makroekonomikoaren testuingurua kontuan hartuta.

Ekainean joera hori eten egin zen eta 10 urterako zor publikoak galera handiak jaso zituen. Izan ere, zorraren prezioen eta eskatutako errentagarritasunaren arteko erlazioa alderantzizkoa da. EBZk interes tasak murriztu zituenean, 10 urterako zor subiranoari eskatutako errentagarritasuna igo egin zen. Era berean, eskuin muturreko alderdiek Europako hauteskundeetan lortu zuten gorakadak ziurgabetasuna areagotu zuen merkatuetan, eta horrek ere gora egin zuen eskatutako errendimenduetan. Hala, 10 urterako bonu frantsesari eskatutako errentagarritasuna %3,30era igo zen, eta Italiako zorrari eskatutako errentagarritasuna, berriz, %4,0tik gorakoa izan zen. Bestalde, 10 urterako Espainiako bonuaren errentagarritasuna %3,46tik gora igo zen, eta aurtengo maximoak ia ukitu zituen. Bien bitartean, bonu alemaniarra egonkor mantendu zen, eta horrek arrisku sariak piztu zituen Europan. Besteak beste, Espainiako arrisku saria oinarrizko 93 puntutaraino igo zen (maximoa aurtengo otsailetik), Greziakoa 120 puntutaraino eta Italiakoa 151 puntutaraino.

AEBetan, bestalde, tasen murrizketaren atzerapenak eta murrizketa bakarra onartuko dela planteatzeak 10 urterako bonu estatubatuarraren errentagarritasuna gorarazi zuten, aurtengo maximoetan, eta %4,4ko errentagarritasuna gainditu zuen.

Errenta aldakorreko merkatuari dagokionez, burtsako indize nagusiek balio irabazi handiak eskuratu zituzten aurtengo lehen erdian. Gorakada horiek datu makroekonomiko positiboek eta enpresen emaitzen bilakaera onak bultzatu zituzten, batez ere AEBetan. Izan ere, ekainaren 9ko Europako hauteskundeak arte, Europako burtsak irabazi handiak izan zituzten. Besteak beste, Ibex-35ek %12,9ko irabaziak izan zituen, Eurostoxxek %11,7koak, Londresko burtsak %6,6koak eta, azkenik, Parisko CACek %6,1ekoak.

Hala ere, Europako hauteskundeen emaitzak ziurgabetasuna areagotu zuen eta Europako burtsak zigortu zituen, bost egunetan lortutako errebalorizazioen zati handi bat galdu baitzuten. Horrela, Ibex-35ek 11.000 puntuko maila galdu zuen eta bere mozkinak %8,8ra jaitsi ziren; Eurostoxx-50ek, berriz, %7,0ra mugatu zituen bere irabazi metatuak. Zalantzarik gabe, Parisko burtsa izan zen kaltetuena, hauteskundeak aurreratuta, eta %0,5eko galerak izan zituen. AEBak, aldiz, Europako parkeen zurrumbiloen aurrean immune mantendu ziren, eta burtsa nagusiek gorantz kotizatu zuten berriro. S&P 500 indizea nabarmendu zen, %13,9ko errebalorizazioa pilatu baitu aurtan. Bere bost akzio garrantzitsuenak (Microsoft, Apple, Nvidia, Alphabet eta Amazon) igoera horren erdia baino gehiagoren erantzuleak dira, adimen artifizialaren gorakadari esker.

Dibisa merkatuetan, martxotik ekainera bitarteko aldian, euroaren truke tasa efektiboa ia egonkor mantendu zen. Euroak AEBetako dolarraren aldean balio galera txiki bat izan bazuen ere, galera hori aise konpentsatu zen euroa beste dibisa garrantzitsu batzuen aldean balioetsi zelako. Hala ere, hauteskundeetako emaitzak hegazkortasuna ekarri zion euroari, AEBetako

enplegu datu sendoen ondorioz jada presiopean baitzegoen. Hain zuzen ere, ekainaren erdialdean, euroa 1,068 dolarrera jaitzi zen euro bakoitzeko, eta horrek esan nahi du euroak %1,14ko balio galera izan duela dolarraren aldean aurtan. Bestalde, Japoniako Bankuak tasak igoko zituela iragarri ondoren, yenak, ahulduta zegoenez, balioa galdu zuen euroaren eta dolarraren aldean. Urtea hasi zenetik, euroak %10,97 egin du gora, yenaren aldean, eta dolarrak, berriz, %12,85.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2022	2023	2024					
			Urt.	Ots.	Mar.	Ap.	Mai.	Eka. (**)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,054	1,082	1,091	1,079	1,087	1,073	1,081	1,082
Yena/euro	138,0	151,9	159,3	161,3	162,8	165,0	168,5	169,1
Libera esterlina/euro	0,852	0,871	0,859	0,855	0,855	0,857	0,856	0,847
€ efektibo nomin.(%)	95,6	98,2	98,4	98,1	98,8	98,6	98,9	98,7
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	-5,6	22,8	-0,2	-1,0	9,6	7,4	12,1	8,8
Eurostoxx-50	-11,7	19,2	2,8	7,9	12,4	8,8	10,2	7,0
Dow Jones	-8,8	13,7	1,2	3,5	5,6	0,3	2,6	2,5
Nikkei 225	-9,4	28,2	8,4	17,0	20,6	14,8	15,0	16,1
Standard & Poors 500	-19,4	24,2	1,6	6,8	10,2	5,6	10,6	13,9

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte. (**) Ekainaren 17ko datuak.


Iturria: Espainiako Bankua.

Euriborrari dagokionez, aurtengo lehen sei hilabeteetan profil laua erakutsi du. Zehatzago adierazita, hipoteken erreferentziatzko indize nagusiak %3,679ko balioarekin itxi zuen abendua, eta ekainaren erdialdean %3,672an kokatu zen. Izan ere, merkatuek lehenago deskontatu zuten ekainean interes tasek izango zuten jaitziera. Nolanahi ere, jaitziera hori urrun dago 2021eko abendutik hipotekek izan duten garestitzea konpentsatzetik, orduan euriborra balio negatiboetan baitzegoen. Urteko bigarren seihilekoari begira, erakunde nagusiek uste dute euriborrak beheranzko joerarekin jarraituko duela eta, esku hartzeko interes tasaren murrizketa berrien aurrean, 2024a %3,0tik gertu edo pixka bat azpitik itxiko duela.


Higiezin merkatuak, bestalde, dinamismo falta erakusten jarraitu zuen, nahiz eta 2024ko lehen hiruhilekoko datuek hobekuntza handia ekarri zuten 2023ko amaierako erregistroarekin alderatuta. Hain zuzen ere, aurtengo lehen laurdenean 4.726 hipoteka formalizatu ziren, hau da, aurreko hiruhilekoan baino 557 gehiago. Hala eta guztiz ere, oraindik urrun dago 2023ko lehen hiruhilekoan sinatu ziren 5.455 hipoteketatik. Izan ere, euriborrak egonkortasuna erakutsi duen arren, hipotekak formalizatzeko batez besteko interes tasak gorantz jarraitu zuen, eta martxoan %3,41ean kokatu zen, 2014ko abendutik izan duen mailarik altuenean, INEk zabaldutako datuen arabera. Era berean, moneta politika gogortzeko zikloa hasi zenetik etxebizitza bat jabetzan izatearen eta bertan bizitzearen kostuak nabarmen gora egin du. Horrek eta ziurgabetasunak eskaria handitzea eragozten dute.

Etxebizitzen hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milak)
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)



Euriborra 12 hilera



EAEko eragileek beren zorpetze gehigarria atzeratzera bultzatu zuten, kredituak alde zuzenetik amortizatzen jarraitu zuten bitartean.

Horren guztiaren ondorioz, EAEko eragileen zorpetzea 66.650 milioi eurora jaitsi zen gutxi gorabehera, hau da, duela urtebete zegoena baino %3,5 gutxiago. Jaitsiera jarraituak sei hiru hilabetez izan dira, eta hiru urtera arte igoko lirateke, 2022ko hirugarren hiru hilabetez izandako gorakadagatik izan ez balitz. Hala eta guztiz ere, 2024ko lehen hiru hilabetez metatutako zenbatekoa 2023ko amaieran erregistratutakoa baino 183 milioi euro handiagoa izan zen, eta horrek %0,3ko igoera txiki bat adierazten du. Izan ere, kreditu pribatuek, urte arteko konparazioan behera egin arren, %0,3 egin dute gora hiru hilabetez arteko tasan, urte hasierako datu ekonomiko positiboek bultzatuta ziurrenik. Bestalde, sektore publikoak ez zuen joera hori jarraitu eta bere zorpetze maila murriztu zuen bai urteko alderaketan, bai hiru hilabetez konparazioan.

Hala ere, adi egon behar da bigarren eta hirugarren hiru hilabetezko datuekin. Epealdi horretan, banku erakundeek beren eskaintzak doitu zituzte, erreferentziazko interes tasen murrizketa islatzeko. Horri esker jakin ahal izango da hautemandako igoera puntuala izan den edo EAEko eragileak benetan egoera ekonomikoa hobetzen ari diren eta zorpetzeko joera handiagoa duten.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2022	2023	2023			2024		Aldea 2022-II eta 2024-I	
			II	III	IV	I	I	Milioi €	Tasa
Kredituak	-0,5	-4,9	-4,9	-5,3	-4,9	-3,5	66.648,3	-5.980,6	-7,3
Arlo publikoa	-0,7	-6,0	-6,6	-4,7	-6,0	-3,6	8.803,2	-1.405,8	-13,8
Arlo pribatua	-0,5	-4,8	-4,6	-5,4	-4,8	-3,5	57.845,1	-4.574,8	-8,2
Gordailuak	1,5	-1,4	-2,0	-1,6	-1,4	1,1	97.051,0	-1.373,4	-1,4
Arlo publikoa	5,3	1,2	8,1	16,5	1,2	7,3	10.993,7	2.244,9	25,7
Arlo pribatua	1,1	-1,7	-2,9	-3,4	-1,7	0,4	86.057,3	-3.618,4	-4,0
Agerikoak	2,0	-8,9	-4,7	-6,9	-8,9	-8,7	72.421,8	-10.595,5	-12,8
Eperakoak	-18,3	92,3	19,2	39,4	92,3	111,7	13.635,5	6.977,1	104,8

Iturria: Espainiako Bankua.

Azkenik, interes tasen igoerak banku erakundeek eskainitako ordainsari tasetan islatzen hasi ziren. Horren ondorioz, urtebete batez etengabeko uzkurduren ondoren, gordailuek %1,1eko igoera izan zuten. Igoera hori sektore publikoan zein pribatuan gertatu zen. Martxoan, familien eperako gordailuen batez besteko tasa haztatua %2,49koa izan zen, eta enpresena, berriz, %3,4koa. Beste aldetik, ageriko kontuek tasa baxuagoak izan zituzten: %0,17 familientzat eta %0,78, berriz, enpresetan. Horrek guztiak ageriko kontuetatik eperako kontuetara kapitala aldatzea eragin zuen, eta azken horiek hiru hilabetean 1.600 milioi euro baino gehiago handitu ziren. Are gehiago, urte bakar batean eperako gordailu pribatuek bikoiztu egin dute beren kopurua, 6.400 milioi eurotik 13.600 baino gehiagora pasatuz, 2019ko erdialdekoen antzeko mailak baitira. Gorakada hori gorabehera, ageriko gordailuek produktu izarra izaten jarraitu zuten, eta sektore pribatuak gordailututako kopuruaren %75 biltzen zuten.

Aurreikuspenak

Munduko ekonomiarekiko aurreikuspenak egonkor mantendu dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. NDFk hamarren bat igo zuen 2024rako hazkundearen zenbatespena, %3,2raino, eta 2025ekoaren pare jarri du orain. ELGak zenbatesten dituen zifren ia berdinak: %3,1eko hazkundera aurreikusten du urte honetarako, eta %3,2koa, berriz, datorren urterako. Serie historikoarekiko zifra altuak ez badira ere, badirudi oraingoz baztertu egiten dutela ekonomia globalaren moteltzea, nahiz eta hori ez den aplikagarria munduko eremu ekonomiko guztientzat, bakoitza bere aldetik joango delako.

Ondasun eta zerbitzuen merkataritza globalaren bolumenari dagokionez, nahiz eta igurikimenek adierazten duten aurtun hobekuntza nabarmena izango dela 2023arekin alderatuta eta 2025ean etengabeko susperraldia lortuko dela, NDFk bere hazkundearen aurreikuspena murrizten ari da iazko urriko txostenetik. Hain zuzen ere, merkataritza globalaren bolumenean espero den hazkundera bost hamarren txikiagoa da orduan, eta beherapen handiena ekonomia aurreratuen inportazioen datuan gertatu da. Errusiak Ukraina inbaditu ondoren, merkataritzako fluxuak bloketan zaitu izanari egozten dio organismoak, batez ere sektore estrategikoetan, eta baita ezarritako zigorrei ere. ELGak ere aurreikusten du merkataritza globalak 2024an gora egitea, 2023ko hazkunde txikiaren ondoren, nahiz eta merkataritzaren hazkunde ratioa produkzioaren hazkunderarekiko 2011-2019 aldiko zifren azpitik egongo litzatekeen ELGA osatzen duten herrialde guztietan.

Duela zenbait hilabete ziurgabetasun handia zegoen AEBetako ekonomiaren bilakaerari buruz, baina gaur egun zalantza gutxi dago AEBko ekonomiak gidatuko ote duen ekonomia aurreratua handien hazkundera 2024an. Hala ELGA (%2,6) nola NDF (%2,7) bat datoz aurreikuspenak igotzeko orduan, baina bi erakundeek %2tik behera mantentzen dituzte 2025erakoak.

Nabarmendu behar da lehen hiruhilekoko inflazio datuek sortu zituzten zalantzek berretsi dutela desinflazio bidea ez dela aurreikusitako erritmoan gertatzen ari, eta, ondorioz, Erreserba Federala ez dela izan, banku zentral garrantzitsuenen artean, interes tasen jaitsieren faseari hasiera eman diona. Duela hilabete batzuk urtea amaitu aurretik 0,75 punturainoko tasa murrizketak egitea aurreikusten bazen, gaur egun analistek eta Erreserba Federalesko batzordekideek berek ez dute oinarritzko 25-50 puntuak gaintitzearen alde egiten. Horiek horrela, 2024ko NDFren inflazioaren aurreikuspena erreferentziazat hartuta (%2,9), interes tasa errealak %2 eta %2,5 ingurukoak izango dira, aurreko urtean baino %1 gehiago, gutxi gorabehera.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Munduko ekonomia	2,7	2,5	2,6	5,6	4,1	2,9
AEB	2,5	2,3	1,7	4,1	3,2	2,4
Kanada	1,2	1,0	1,8	3,9	2,5	2,1
Japonia	1,9	0,3	1,2	3,3	2,6	2,0
Eurogunea	0,5	0,7	1,4	5,4	2,4	2,0
Europar Batasuna	0,6	1,0	1,6	7,2	2,6	2,1
Alemania	-0,2	0,2	1,2	5,9	2,4	2,0
Espainia	2,5	2,1	1,9	3,5	3,1	2,1
Frantzia	1,1	0,9	1,2	4,9	2,5	1,9
Herbehereak	0,1	0,5	1,4	3,8	2,8	2,2
Italia	0,9	0,8	1,0	5,7	1,4	1,8
Erresuma Batua	0,1	0,6	1,1	7,3	2,6	2,3
Asia Pazifikoa	4,3	3,9	3,8	2,1	1,8	2,1
Ekialdeko Europa	2,8	2,7	2,8	16,7	13,1	8,2
Latinoamerika (Venezuela ezik)	2,2	1,6	2,4	23,8	18,4	8,1

Iturria: Consensus Forecasts (2024ko ekaina).

Puntu horretan, garrantzitsua da azpimarratzea diru politika murriztaileago hori %8,8ko defizit fiskalarekin bizi izan zela 2023an, eta NDFk uste duela aurreko eta datorren urtean ere gora egingo duela, neurri txikiagoan bada ere (%6,5 eta %7,1, hurrenez hurren), eta, ondorioz, 2025ean BPGaren %126,6ra iritsiko dela herrialdeko zorra. Horrek, inflazioaren

iraunkortasunarekin batera (interes tasen jaitsiera atzeratuko du), Altxor estatubatuarraren finantzaketaren batez besteko kostuak gora egiten jarraituko du nabarmen. Horrekin guztiarekin, nazioarteko erakunde nagusiek aurreratu duten bezala, espero izatekoa da 2025etik aurrera AEBetako ekonomia hoztu egingo dela, nahiz eta merkataritza eta industria politikaren arloko erabaki berriak ere faktore erabakigarriak izango diren.

Europar Batasuneko ekonomien ekoizpenak aurreikuspen gehienak gainditu zituen, eta %0,3 igo zen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Datu horrek iazko hiruhileko guztietakoa hobetu du. Europako Batzordeak urte osorako egindako aurreikuspena baikorrenen artean zegoen jada; beraz, hamarren bat baino ez da aldatu, %1,0raino, eta eurogunekoa, berriz, %0,8an mantendu da. Beste aldetik, EBZren aurreikuspena, zifra baxuagotik abiatzen zena, hiru hamarren igo da, %0,9ra arte. Europako Batzordeak uste du kontsumo pribatua indartzea izango dela hazkunde bide nagusia, soldata errealen igoerak eta enpleguak bultzatuta, eta horrek errenta erabilgarria handituko duela, nahiz eta aurrezki tasak handia izaten jarraitu. Bestalde, inbertsioak ahul jarraituko du, Italian, Frantzian, Alemanian eta herrialde eskandinaviarretan bizitegien eraikuntzak geldialdia izan duelako, baina 2025ean %2 haziko da.

Europako Batzordeak ez du kontuan hartzen Alemaniako ekonomia 2024an suspertuko denik, eta aurreratu du bere ekoizpena %0,1 baino ez dela handituko, kontsumo pribatuaren ahuleziagatik eta bere esportazio merkatuen eskari txikiagatik. 2025era arte ez da %1,0ko hazkunde tasara iritsiko inbertsioa eta kontsumo pribatua hobetuta, inflazio neurritsuagoari eta familien diru sarreraren nolabaiteko susperraldiari esker. Frantziako ekonomiaren kasuan, Europako Batzordeak aurreikusten du inflazioa %2,5era jaitsiko dela aurten, eta horri esker kontsumo pribatua %1,2 haziko dela, BPGa %0,7 haziko dela eta datorren urtean jarduera %1,3ra igoko dela inbertsioa nabarmen hobetu delako. Hala ere, kalkulatzen da Frantziako estatuaren defizita %5,3ra iritsiko dela 2024an, eta %5,0ra, berriz, 2025ean; beraz, arau fiskal berrien esparruan, espero izatekoa da proiektzio makroekonomikoak aldatuko dituzten doikuntzak egitea, Italiaren kasuan bezala.

Moneta bateratuko ekonomietako inflazioaren bilakaera, AEBetan bezala, baina hilabete batzuetako desfasearekin, nolabaiteko iraunkortasunari aurre egiten ari zaio. Urteko lehen hiruhilekoan negoziatutako soldaten %4,7ko hazkundearen datuak berretsi egiten zuen zerbitzuen prezioek hilerok aurreratzen zutena. Hala, 2023an soldatapeko bakoitzeko ordainsaria %5,2 igo ondoren, EBZk kalkulatu du 2024an %4,8ra baino ez dela jaitsiko. Hori dela eta, energiaren prezioa aurreratu zena bezain ona izan gabe, nahiz eta prezioak jaitea espero den. Hori dela eta, EBZak bi hamarren handitu du 2024rako inflazio aurreikuspena, eta zalantzak daude urtea amaitu aurretik gertatuko diren tasa beherapenen kopuruari buruz.

2024ko lehen hiruhilekoan, Espainiako ekonomiak nabarmen gainditu zituen Europako testuinguruan berez altuak ziren aurreikuspenak, %2,4 hazi baitzen urte arteko terminoetan. Horren ondoren, goranzko berrikuspen jauzi bat gertatzen ari da, eta Espainiako ekonomiaren hazkundera %2-%2,5eko tartean kokatzen dute; beraz, 2023ko hazkunderarekiko moteltzea (%2,5) ez da oso nabarmena izango. Ceperederen aurreikuspenei jarraiki, Espainiako ekonomiaren jarduera %2,1 handituko da 2024an, enpleguaren eta barne eskariaren sendotasunari esker, inbertsioaren bultzadagatik. Inbertsioa %4,5 handituko da, Next Generation EU funtsen exekuzioari lotuta, eta finantzaketa kostu handiak konpentsatuko ditu. Ordainetan, inbertsio maila horrek inportazio handiagoak beharko ditu, eta, beraz, kanpo saldoaren ekarpen garbia negatiboa izango da, nahiz eta zerbitzuen esportazioak eta ez-egoiliarren kontsumoa hazi, %5 eta %7 handituko baitira, hurrenez hurren, eta ondasunen kanpo salmentak, berriz, 2023ko maila berean mantenduko dira.

ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2024ko maiatza)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024			2024	2025
	II	III	IV		
BPG	2,3	2,1	1,6	2,1	2,4
Kontsumo pribatua	2,1	1,2	1,4	1,8	2,4
Kontsumo publikoa	2,9	2,9	2,8	2,9	2,3
Kapital eraketa gordina	3,6	5,3	7,6	4,5	4,1
- Taldeko inbertsioa	4,4	2,8	7,4	3,1	4,3
- Landatutako aktiboen inbertsioa	7,6	13,5	19,2	11,3	18,2
- Eraikuntzako inbertsioa	3,3	7,0	8,1	5,5	3,2
Barne-eskaria	2,9	2,3	2,2	2,4	2,6
Esportazioak	0,4	5,1	3,4	1,9	4,3
Inportazioak	1,7	5,9	5,3	2,7	4,9

Iturria: Ceperede.

2025ean, Espainiako ekonomiaren bilakaerak positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da, inflazio neurritsuko eta jarduera ekonomikoaren nolabaiteko susperraldiko testuinguru europar batean. Ceperederen arabera, hazkundera %2,4raino bizkortuko da, azken kontsumoko gastu handiagoak eta inbertsio publikoaren etengabeko bultzadak lagunduta. Beste aurreikuspen batzuek, 2024ko hazkunderaren goranzko berrikuspen garrantzitsuen ondoren, 2025ean hazkunde txikiagoaren alde egiten dute. Horrela, Europako Batzordeak aurreikusten du aurten %2,1eko hazkundera izan ondoren, bi hamarren murriztuko dela, datorren urtean %1,9raino.

Zifra horrekin bat dator Espainiako Bankua, eta NDFk ere dezelerazio txiki bat espero duen arren, produkzioa %2,1 haziko dela uste du.

Aurreikuspenen ariketaren oinarri diren kanpoko hipotesiei dagokienez, inflazioaren dinamika ez da espero bezain ona, eta horrek baldintzatu egiten ditu EBZren diru politikako erabakiak. Ondorioz, gora egin du euriborrak 2025era arte izango duen bilakaerak. Horrela, adierazlearen murrizketa mailakatuagoa aurreikusten da, duela hiru hilabete urte honetan eta hurrengoan baino. Adierazi den bezala, EBZren eta Erreserba Federalaren erabakien zentzu desberdinak nolabaiteko ziurgabetasuna gehitzen dio dibisa bakoitzaren erlazioaren bilakaerari, eta etorkizuneko berrikuspeni atea irekitzen die. Hala ere, oraingoz, 2024an 1,083ko truke tasa euro-dolarra hartu da erreferentziatzat, eta 2025ean euroa dolar bakoitzeko 1,105 eurora iritsi arte estimatuko litzatekeela onartzen da. Esportazio merkatu nagusiei dagokienez, kalkulatu da ELGAko ekonomiak bilakaera egonkorra izango duela 2024an eta 2025ean, eta Europako inguruneak hobera egingo duela datorren urtean.

AURREIKUSPENAK EGITEKO HIPOTESIAK (2024ko ekaina)

Mailak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2024			2024	2025
	II	III	IV		
Euriborra (3 hileko)	3,8	3,7	3,4	3,7	2,8
Euro dolar truke tasa	1,091	1,085	1,071	1,083	1,105
Espainiako BPGa	2,3	2,1	1,6	2,1	2,4
ELGaren BPGa	1,7	1,6	1,7	1,7	1,8
Euroguneko BPGa	0,5	0,9	1,2	0,7	1,5
Espainiako konts. pribatuaren deflaktorea	3,3	2,8	2,4	3,1	2,3
Espainiako ondasunen esport. deflaktorea	0,7	0,7	0,6	-0,2	1,7

Iturria: Ceprede eta Europako Banku Zentrala

Aurtengo lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak aurreikuspenak hobetu zituen eta urte arteko %1,7ko hazkundea lortu zuen, kontsumo pribatuak, publikoak eta kanpo saldoak aurreikusi baino portaera hobea izan zutelako, kapital eraketa gordin txikiagoa konpentsatzeko balio izan baitzuen, batez ere ekipamendurako ondasunetan egindakoa. Hala eta guztiz ere, esportazioen eta inportazioen hazkundearen arteko balantzea negatiboa izan zen, esportazioek %3,7 egin baitzuten behera, neurri handi batean 2023ko lehen hiruhilekoko gorakada handiaren ondorioz, BPGaren hazkundeari bost hamarreneko ekarpena egin baitzion. Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzaren sektoreak uste baino hazkunde handiagoa izan zuen, eta zerbitzuen

hazkundearen estimazioarekiko aldea bi hamarrenekoa izan zen, nahiz eta, EAEko ekonomian duen pisu handiagatik, agregatuaren aurreikuspenarekiko desbiderapen gehiena azaltzen duen osagaia izan.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2024ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024			2024	2025
	II	III	IV		
BPG	1,9	2,0	2,1	1,9	2,1
Azken kontsumoa	1,8	2,0	1,9	1,9	1,9
Kontsumo pribatua	1,7	2,0	1,9	1,8	1,9
Kontsumo publikoa	2,5	2,0	2,0	2,3	2,1
Kapital eraketa gordina	2,1	2,6	2,9	2,2	2,4
Barne eskariaren ekarpena	2,0	2,2	2,2	2,0	2,1
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	-0,2	-0,2	-0,1	-0,1
Lehen arloa	2,0	-0,4	1,8	0,7	3,0
Industria eta energia	0,5	1,0	1,3	0,7	1,6
Eraikuntza	1,7	1,7	1,6	1,8	1,8
Zerbitzuak	2,3	2,4	2,4	2,3	2,2
Balio erantsi gordina	1,9	2,0	2,1	1,9	2,1
Ekoizkinen gaineko zergak	1,8	1,9	2,1	1,9	2,1
BPG nominala	4,7	4,7	4,7	4,7	4,1
BPGaren deflatoarea	2,8	2,7	2,6	2,7	2,0
Langabezia tasa	7,2	6,9	6,8	7,2	6,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Hipotesi berriak eta EAEko ekonomiaren dinamika kontuan hartuta, lehen hiruhilekoko emaitza barne, ekonomiaren hazkundearen aurreikuspena %1,9koa da 2024rako eta %2,1ekoa, berriz, 2025erako. Kontsumorako gastuaren hazkundera %1,9koa da aurten, iazkoa baino hiru hamarren handiagoa; kontsumo pribatua %1,8 hazi da eta kontsumo publikoa %2,3. 2025ean, kontsumo pribatuaren deflatoarearen hazkundera, enpleguaren gorakadak eta soldata errealean nolabaiteko susperraldiak ahalbidetuko dute familien kontsumoa hamarren bat gehiago igotzea, %1,9ra arte, eta kontsumo publikoak %2,0tik gora igotzen jarraituko du. Kalkuluen arabera, kapital eraketa gordinaren gorakada aurreko aurreikuspenetan aurreikusitakoa baino lau

hamarren txikiagoa izango da urte osoan, Europako testuinguru osoan inbertsioa gutxitzen ari diren finantzaketa kostu handien ondorioz, nahiz eta urtean zehar goranzko bideari eutsiko zaion. Kanpo saldoari dagokionez, esportazioen hazkundeak batez besteko historikoaren azpitik jarraituko duela kalkulaten da, batez ere lehen hiruhilekoko emaitza txarragatik, eta kanpo saldoak, barne eskaria hobetzen den heinean eta esportazioak hobetzen ez diren heinean, ekarpen negatiboa izango duela.


2024ko eta 2025ko aurreikuspenak (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Zerbitzuen sektoreak, gutxi gorabehera BPG nominalaren %64ko pisua duenak, balio erantsiaren sorkuntzaren buru izaten jarraituko du, jarduera %2,3 haziko dela aurreikusten baita, hau da, hamarren bat handituko da aurreikuspena, kontsumoaren hazkundearen aurreikuspenaren berrikuspenarekin bat etorriz. Industria jarduera %0,7 handitzea aurreikusten da, eta zifra hori serie historikoaren batez bestekoaren azpitik dago, eta, aldi berean, ekoizpen agregatuaren hazkundearen azpitik, baina 2023an sektoreak izandako hazkundera baino handiagoa da, eta Europako ingurunearen jarduera hobetzen den heinean goranzko bideari jarraituko diola kalkulaten da. Interes tasa altuak izan arren, eraikuntzaren sektorearen dinamismoak aurreikuspenak gaitzen jarraitzen du, eta inbertsioa hazteko bide nagusia izateaz gain, datozen bi urteetako bakoitzean %1,8 haziko dela aurreikusten da.

Lan merkatuari dagokionez, 2024an gutxi gorabehera lanaldi osoko 18.000 enplegu baliokide sortuko dira, hau da, %1,8ko hazkundera. Horietako asko zerbitzuen sektorea osatzen duten jardueretan kontzentratuko dira, batez besteko horretatik gora haziko baita, eta lanaren itxurazko produktibitatearen hazkundeak mugatua izaten jarraituko du. Biztanleria landunari


dagokionez, hazkundera txikiagoa izango dela aurreikusten da (%1,4), batez besteko lanaldian lan egindako benetako orduak murriztu egingo direlako. Horrela, langabezia tasak behera egingo luke 2023ko %7,8tik 2024ko %7,2ra eta gero 2025eko %6,8ra.

Aurreikuspenen arabera, ekoizpenaren deflatoea %2,7 handituko da 2024an eta %2,0, berriz, 2025ean; beraz, BPG nominala 95.551 eta 99.463 milioi eurokoa izango da 2024an eta 2025ean, hurrenez hurren. Ekoizpenaren prezioen hazkunde tasa 2023ko %4,0tik jaitsi izana esportazioen prezioen neurritasunaren eta kontsumoko prezioen pixkanakako murrizketaren ondorio da. Azken horiek jaisten jarraituko dute, 2025ean %2,0ra hurbildu arte, nahiz eta inbertsioaren deflatoea nahiko handia izango den 2024an.


Aurreikuspenen panelean, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren estimazioa 2024 eta 2025eko EAEko ekonomiarako aurreikuspenen tarteko puntu batean dago kokatuta. Aurreko hiruhilekotik berritasun bakarra Cerepredek, Laboral kutxak eta BBVA Researchek hazkunderaren estimazioa gorantz berrikusi izana da. Horrenbestez, azken aurreikuspen hori handiena da kontuan hartu diren bi urteetan, eta, ondorioz, aurreikuspen handienaren eta txikienaren arteko aldea txikiagoa da 2025erako 2024rako baino.

2024ko eta 2025ko aurreikuspenak (II) Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2024



Aurreikuspen panela 2025



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2024ko ekaina), Funcas (2024ko martxoa), BBVA (2024ko martxoa), Cereprede (2024ko ekaina), Laboral kutxa (2024ko urtarrila), Confebask (2023ko abendua) eta Hispalink (2023ko abendua).